# ELKARTASUN EKONOMIA



## HERRITARTASUN GLOBALA ERAIKITZEKO

José Javier Goikoetxea Ferrández
Susana Idoate Echarri
Clara Salanueva Beldarrain

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ELKARTASUN EKONOMIA

HERRITARTASUN GLOBALA ERAIKITZEKO

Izenburua: Elkartasun Ekonomia. Herritartasun globala eraikitzeko.
Egileak: José Javier Goikoetxea Ferrández, Susana Idoate Echarri eta Clara Salanueva Beldarrain.

© Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

1. edizioa (2017)
Diseinu grafikoa: Cobo-Munárriz diseño gráfico
Berregintza: Copysan
ISBN: 978-84-235-3470-8
L.G.: NA 2466-2017

Bultzatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

**Reconocimiento – NoComercial – CompartirIgual (by-nc-sa)**

Dokumentu hau Creative Commons lizentzia baten gerizapean dago.

Zilegi da lan hau libreki kopiatu, banatu eta jendarteratzea baldin eta egileak nor diren aitortu eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Edukiaren parte bat erabili edo banatzeko, nahitaezkoa da jatorrizko lana arautzen duen lizentzia beraren azpian egitea..

Lizentzia osoa: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/

*"Gehiegi izanen da geure etorkizun ekonomikoa ekonomistek baldintzatzen dutela esatea; baina ezin uka daiteke haien eragina edo, beti ere, ekonomiaren eragina irispide handi-handikoa dela".*

E.F. Schumacher

*"Ezin konformatu gara 'mundua den bezalakoa dela´ pentsatzearekin.*
*Ez. Mundua guk egiten dugun bezalakoa da".*

André Liohn

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua
Gobierno de Navarra
Departamento de Educación

Coordinadora de ONGD Navarra
Nafarroako GGKEen Koordinakundea

escuelas solidarias
elkartasun eskolak

# AURKIBIDEA

HITZAURREA . . . . . 5

SARRERA . . . . . 7

1. MULTZOA
**Ekonomia eta eskasia. Jarduera ekonomikoaren antolamendua**
*Arlo teorikoa* . . . . . 8
*Jarduerak* . . . . . 12

2. MULTZOA
**Jarduera produktiboa**
*Arlo teorikoa* . . . . . 33
*Jarduerak* . . . . . 36

3. MULTZOA
**Merkatua eta prezio sistema**
*Arlo teorikoa* . . . . . 42
*Jarduerak* . . . . . 45

4. MULTZOA
**Makroekonomia**
*Arlo teorikoa* . . . . . 62
*Jarduera* . . . . . 66

5. MULTZOA
**Ekonomiaren finantza alderdiak**
*Arlo teorikoa* . . . . . 86
*Jarduera* . . . . . 88

6. MULTZOA
**Ekonomiaren testuinguru nazioartekoa**
*Arlo teorikoa* . . . . . 105
*Jarduera* . . . . . 107

7. MULTZOA
**Desoreka ekonomikoak eta Estatuak ekonomian duen papera**
*Arlo teorikoa* . . . . . 121
*Jarduera* . . . . . 123

# HITZAURREA

2010-11 ikasturtean LOEko curriculumak Elkartasun Ekonomiaren inguruko hainbat eduki berri bereganatu zituen Nafarroan Gizarte Zientzia-Ekonomia ibilbiderako.

Nafarroako Ekonomia irakasle talde batek eskatuta, ILZak (Irakasleak Laguntzeko Zentroa) Elkartasun Ekonomiazko ikastaro bat proposatu zuen, bertan hauek bezalako gaiak jorratzeko: Elkartasun Ekonomiaren printzipioak, Kontsumo arduratsua. Merkataritza zuzena, finantza etikoak, Tobin tasa... eta globalizazioaren on-gaitzak ere bertan aztertzeko, hazkunde eta garapenaren arteko dikotomia, hazkundea edo des-hazkundea ...

Gai horietan interes handia zuen irakasle talde txiki batek, Batxilergoko lehen kurtsoko ikasleekin horiek nola landu litezkeen jakin nahirik, elkarrekiko harremanari eutsi eta lantalde gisa eratzea erabaki zuen Elkartasun Eskolak proiektuaren barrenean.

Horrela, bada, “Elkartasun Ekonomia herritartasun globala eraikitzeko" ikastetxe-arteko proiektua da, zeinean Nafarroako hiru ikastetxek parte hartu duten: Barañain BHI, Nuestra Señora del Huerto ikastetxea eta ZIZUR BHI.

Barañain BHI ikastetxea Barañaingo udalerrian dago, Iruñetik hurbil. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoa da (DBH eta Batxilergoa ematen ditu). 515 ikasle ditu matrikulaturik eta bertan 59 irakasle ari dira lanean.

Nuestra Señora del Huerto ikastetxea ikastetxe katoliko hitzartua da, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dituena. Iruñeko Donibane auzoan dago. 1236 ikasle ditu matrikulaturik eta bertan 84 irakasle ari dira lanean.

ZIZUR BHI ikastetxea Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko elebiduna da (DBH eta Batxilergoa), zeinean bai euskaraz bai erdaraz irakasten den, hiru hizkuntza eredu baitaude elkarren ondoan: G (gaztelania), D (euskara) eta A (gaztelania, euskara ikasgai dela). Zizurren kokaturik dago eta bertara bai Zizurko eta bai inguruko herrietako ikasleak joaten dira (Zizur zendea, Galar zendea, Iltzarbe ibarra eta Mañeru ibarra. 1198 ikasle ditu matrikulaturik eta bertan 118 irakasle ari dira lanean.

Zenbait urtetan epez epe bilerak egin ditugu Elkartasun Ekonomiaren inguruko jarduerak eta proposamenak elkarrekin trukatzeko. Duela pare bat urte erabaki genuen beste urrats bat eman eta ekonomia klaserako jarduera liburu bat itxuratzea, baina planteamendu desberdin eta kritikoxeago batetik.

Zenbait alderdi berritzaile azpimarra ditzakegu proiektu honetan:

1. Esperientziaren **edukia**, gaur egun ekonomia gai garrantzitsua baita, baina bestelako ikuspuntu batetik azterturik, beste tresna eta balio batzuk erabiliz, Garapenerako Hezkuntzarekin eta Herritatasun Global bat eraikitzearekin adosagokoak.

2. Lan egiteko modua, beste ikastetxe batzuetako irakasleekin **elkarlanean**. Horri esker, aukera izan dugu ideia eta jarduera asko elkarrekin trukatu eta duda momentuetan elkar laguntzeko ere.

3. Jarduera **corpus bat UDI** (Unitate Didaktiko Integratua) diseinu baten barnean itxuratzea, curriculum ofiziala oinarri hartu eta ebaluazio irizpiden arabera aztertu eta gako gaitasunak ardatz harturik, elkartasun proiektu bat garatzeko zeinean ardura handiko gai bat aztertzen den (ekonomia, mundu globalizatuaren funtzionamenduaren motorra). Horrek aukera ematen du, ikasleen testuinguru eta errealitatearekiko dituen diferentziengatik, elkartasun balioak eta errealitate horren gaineko ikuspen kritiko eta eragile bat garatzeko.

4. Esperientzia bera, gure ikasleak ikas prozesu hau guztiaren aktore nagusi direlarik; horrek eraman gaitu proiektua **gizarteratu** nahi izatera, hezkuntza komunitate osoak gure proposamenetan parte eta esku hartzeko moduan..

Irakasle dinamizatzaileez eta parte hartzen duten ikasleez gain, hainbat GKGLetako kideen laguntza ere izan dugu, hala nola Intermon Oxfam (Enrique Abad eta Lianella González), REAS (Carlos Rey), ALBOAN (Ani Urretavizcaya), UNRAW (Izaskun Lara), ANAS (Carol García), Vicente Ferrer (María Zulaika), ATTAC Navarra, Artisans du monde – Biarritz; Baionako AMAP eta Angeluko Han&Hemen, bai eta Marian Pascualen laguntza ere (GKGE koordinakundea).

Gaur aurkezten dizkizuegun jarduerak interesgarriak izanen zaizkizuelakoan eta zuen geletako errealitatera errazki moldatzeko bidea izanen duzuelakoan..

Clara Salanueva Beldarrain

# SARRERA

Proiektu hau irakasle talde batek beste ekonomia bat posible ez ezik, beharrezkoa ere badela pentsatu zuenean sortu zen. Gaurko errealitate ekonomikoak ezinbesteko egiten du ekonomia ongi ulertzeko azterketa sakona egitea eta horrexegatik are indar gehiagoz hartzen dugu gogoan zer harreman mota izan nahi dutugun geure inguruan, aberastasunaren banaketa zuzenago eta berdinago bat dagoen mundu batentzat aternatibak bilatuz.

Ekonomia ororen ahotan dagoen momentu batean, inoiz baino ohartago garenean ekonomiak geure bizitzetan duen eraginaz, oraindik honelako kontzeptuen gainean eraikitako planteamendu eta analisiak egiten ditugu: etekinak eta errentabilitatea nola ahalik eta handienak egin, edo baliabideak egoki esleitzeko sistema bakarra eta hoberena merkatua balitz bezala jokatu.

Planteamendu hauen ondorioz, desberdintasuna gero eta handiagoa da eta, hori dela medio, munduko biztanleriaren zati txiki bat (orokorrean Iparrekoa) oparo eta nasai gastatuz bizi den bitartean, zatirik handiena (orokorrean hegokoa) ezin atera daiteke pobreziaren putzutik.

Horregatik, uste dugu garrantzi handikoa dela ekonomia gaien gaineko bestelako alternatibak eta ikuspuntuak lantzeko aukera ematea, horrela ikasleak ideiak eta kontzeptuak erkatzeko gai izan daitezen. Horri esker gauza izanen dira azterketa kritiko eta ongi oinarrituak egin eta konturatzeko beste mundu bat posible dela eta haiek ere aldaketa eragile izan daitezkeela.

Gogoan izanik heztea ikasleen gaitasun guzti-guztiak prestatzea dela, ezagutzazkoak edo intelektualak ez ezik (nahiz eta tradizioz hezkuntza horiei egon den gehiago loturik), pertsona gisa osotara garatzeko bide ematen dietenak ere, hau da, gaitasun fisiko edo mugimenduzkoak, afektiboak edo oreka pertsonalekoak, sozialak eta harremanetakoak... Proiektu honetan, halaber, hainbat hezkuntza balio garatu nahi ditugu: errespetua, erantzukizuna, elkartasuna, elkarrizketa, elkarlana, aukera berdintasuna, edozein diskriminazioren gaitzespena, konpromisoa, bakezko bizikidetza...

*Azken finean, ekonomiaren bitartez herritartasun globala eraikitzea!*

**1. MULTZOA**

# Ekonomia eta eskasia. Jarduera ekonomikoaren antolamendua

- Eskasia, hautaera eta baliabideen esleipena.
- Aukera kostua.
- Baliabideak esleitzeko mekanismo desberdinak.
- Sistema ekonomiko desberdinen azterketa eta konparazioa.
- Eredu ekonomikoak.
- Ekonomia positiboa eta ekonomia arauzkoa.

## *Arlo teorikoa*

"Ekonomia da gizakiaren portaera helburu batzuen eta aplikazio desberdinak dituzten baliabide mugatu batzuen arteko harreman gisa aztertzen duen zientzia" (Lionnel Robbins). Ekonomia, beraz, zientzia bat da, helburu bat baitu: fenomeno ekonomikoak azaltzea eta, hartarako, hainbat metodo erabili eta teoriak eraikitzen baititu. Zientzia enpirikoa da, zeren teoria horiek errealitatearekin erkatu baitaitezke; baina **gizarte zientzia** da, zeren pertsonek jarduera ekonomikoarekiko izaten duten portaera du aztergai. Pertsonek erabakitzen baitute, izan ere, zer, zenbat, nola eta norentzat produzitu ondasun-zerbitzuak. Pertsonek erabakitzen dute naturako baliabide eskasak nola administratu beren premia mugagabeei aurre egiteko. **(1.1 JARD.)**

**Premia** diogunean, ordea, ez dauzkagun baina eduki nahi genituzkeen gauza guztiez ari bagara, orduan, pentsatzen jarrita, ezin konta ahala ondasun eta zerbitzu daude guk ez dauzkagunak baina eduki nahi genituzkeenak. Gure premia horiei asebidea eman ahal izateko, aintzat hartu beharko dugu zer baliabide ditugun eta, gehientsuenetan, ezin ase dezakegun premiaren bat geldituko da. **(1.2 JARD.)**

Hainbat premia mota daude, hala ere. Haien garrantziaren arabera, lehen mailako eta bigarren mailako premiak bereiz ditzakegu. Lehenbiziko premiak, bizirik irauteko ezinbesteko zaizkigunak dira, hala nola janaria, ura, jantzia, oinarrizko hezkuntza, osasun arreta... Bigarrenak, berriz, bizirik irauteko ezinbestekoak izan gabe gure bizi maila hobetzen dutenak dira: Markako arropa, toki urrun eta exotikoetako oporraldiak...

Halatan, bada, gure baliabideak handiagoak nahiz txikiagoak izan, nola beti ere mugatuak diren, beti izanen da ase gabe geldituko den premiaren bat. Beti izanen da ezin eduki dugun ZERBAIT. Orduan sortzen da eskasiaren IDEIA. Eskasia, ordea, zentzu honetan: ezin izanen direla produzitu gure premia guztiei asebidea emateko behar diren ondasun eta zerbitzu guztiak (baliabideak mugatuak baitira eta premiak, berriz, mugagabeak). Nahi dugun guztia ezin eskuratu badugu, beraz,

hautatu beharrean izanen gara eta, hortaz, HAUTABEHARRAren ideia sortzen da. Nahi ditugun ondasun-zerbitzu guztiak ezin eskuratu baditugu, hautatu beharko dugu zein nahi ditugun, eta horietatik zenbat nahi dugun. Gizabanakoak, beraz, hainbat alternatibaren arteko hautabeharrari egin behar dio aurre. **(1.3 JARD.)**

Ondasun-zerbitzu jakin batzuk hautatzen badira, ordea, beste ondasun-zerbitzu batzuk hautatu gabe geldituko dira; horrek, bistan da, kostu bat badu. Kostu horri AUKERA KOSTUA deitzen diogu. Ondasun-zerbitzu baten aukera kostua, beraz, zenbait ondasun-zerbitzu hautatzean uzten ditugun ondasunak dira. Horiek eskuratzeko utzi behar diren beste ondasun-zerbitzuen kopurua da. **(1.4 JARD.)**

Ondorioz:

PREMIA MUGAGABEAK → **BALIABIDE MUGATUAK**

↓

EKONOMIAREN OINARRIZKO ARAZOA → **ESKASIA**

↓

**HAUTABEHARRA**

↓

**AUKERA KOSTUA**

↓

ADMINISTRATZEA

Hala nola gizakiok zer premiari asebidea eman erabaki eta hautatu beharrean gauden, herri desberdinek ere, zein ere garapen maila duten eta zein ere sistema politiko duten, oinarrizko arazo ekonomikoa ebazten ahalegintzen dira: nola asebidea eman beren herritarren premiei –mugagabeak baitira– orokorrean mugatuak edo eskasak diren baliabideekin? Galdera honi herriek nola erantzun, halako sistema ekonomikoa izanen dute.

**Sistema ekonomiko** bat gizarte baten antolamendu ekonomikoa ezaugarritzen duten harreman oinarrizko, tekniko eta instituzionalen multzoa da, hau da, gizarteek bere jarduera ekonomikoa antolatzeko eta eskasiaren eta baliabide eskasak esleitu beharraren arazo ekonomikoa ebazteko erabiltzen duten mekanismoa da.

Herri bakoitzak bere sistema ekonomikoa izaten du, bi herrik duten antolamenduak, oso elkarren antzekoak badira ere, ez dira inoiz berdinak izanen; ez dago, beraz, sistema ekonomiko berbera duten bi herri. Gainera, historiako momentu bakoitzak bere sistema ekonomikoa izaten du. Sistema ekonomikoak aldatu eta bilakatu egiten dira denboraren joanean eta gizarteetan izaten diren aldaketen arabera. Erdi Aroan, adibidez, feudalismoa zegoen eta, Iraultza Ekonomikoaren ondotik, kapitalismoa.

Ekonomiaren oinarrizko galderei (nola eta norentzat produzitu ondasun-zerbitzuak) nork erantzuten dien kontuan harturik, bi talde handi bereiziko ditugu: alde batetik merkatu-ekonomiako sistemak, zeinetan **merkatuak** erantzuten dien ekonomiaren hiru galdera oinarrizkoei; beste alde batetik, plangintza zentralizatuko sistemak, non **Estatuak** erantzuten dien galdera horiei:

| | MERKATU-EKONOMIA | PLANGINTZA ZENTRALA |
|---|---|---|
| **OBJETIVOS** | Eragile bakoitza ahalik eta etekinik handiena lortzen saiatzen da. | rrentaren banaketa berdinzalea lortu, gizarte desberdintasun handirik sortu ez dadin. |
| **NORK HARTZEN DITU ERABAKIAK?** | Eragile ekonomiko bakoitzak, bakarka, erabakitzen du zer komeni zaion gehien. | Estatuak hartzen ditu erabaki ekonomiko guztiak. |
| **NORK ERABAKITZEN DU ZER PRODUZITU?** | Enpresariek erabakitzen dute zer produzitu, eskaria eta eskaintza kontuan harturik. | Estatuak erabakitzen du zer, nola eta norentzat produzitu helburu politikoak gogoan. |
| **NORK FINKATZEN DITU PREZIOAK?** | Prezioak libreki finkatzen dira eskaintza eta eskariren arabera.. | Estatuak prezioak finkatzen ditu. |
| **ZER EGINKIZUN DU ESTATUAK?** | Estatuak ez du eskurik hartzen ekonomian baina bermatu egiten du merkatuaren existentzia. Askatasuna segurtatzen duen lege-barruti bat egon dadin bermatu behar du. "Laissez faire, laissez passer" | Estatuak dena kontrolatzen du. "Estatu-aita" edo "Estatu babeslea". |
| **ABANTAILA NAGUSIAK** | Ondasun-zerbitzu gehiago eta gehiagotarikoak egoten dira eskuragai. Produkzioa konpetitiboagoa da. Kontsumitzaileek erabakitzeko gaitasun gehiago dute. | Errenta berdinago banaturik. Ez dago langabeziarik. Populazio osoak ditu eskuragai oinarrizko zerbitzuak (hezkuntza, osasuna) |
| **DESABANTAILA NAGUSIAK** | Desberdintasun sozialak, monopolioak, inflazioa, langabezia, eskaini gabeko ondasunak, pobrezi poltsak, ekonomiaz landa utzitako jendea. | Sistema inefizientea, sistema burokratiko pisua, pizgarri falta eta lehiakortasun falta, kontsumitzaileak erabakimen gutxiago. |
| **BESTELAKO IZENAK** | Kapitalismoa | Sozialismoa |

Desabantailak gainditzeko, bai Merkatu-ekonomiarenak bai Plangintza zentralizatuko sistemarenak, sistema mistoa sortzen da, zeinaren ezaugarria nagusia den merkatua badagoela, egon, baina Estatuak haren jokaera kontrolatzen duela merkatuaren hutsegiteak ezintzeko. **(1.5 JARD.)**

Hala ere, badago beste modu bat ekonomia ulertzeko: **Elkartasun ekonomia**, zeinak pertsonak hartzen baititu ardatz. Hartara, ekonomiak egon behar du pertsonen zerbitzuan, eta ez pertsonak ekonomiaren, orain gertatzen den bezala. Elkartasun Ekonomiak ikuspuntu etiko eta humanista du, gaurko eredu ekonomiko konbentzionalarekin erabateko talkan, ekonomia tresna bat bezala ulertzen baita pertsonen eta haien inguruaren bizi kalitatea hobetzeko. Hazkundea eta garapena ez dira beren buruzko helburuak, gizarteen hazkundeari eta garapenari laguntzen ez badiete, eta hartarako eredu sozioekonomiko bidezkoago eta zuzenago bat eskatzen du, zeinean ez den inor kanpo uzten. **(1.6 JARD.)**

## *Jarduerak*

### 1.1 JARDUERA Ekonomia

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Gelan ikasitakoa oinarri, ekonomiaren kontzeptua gogoetagai hartu. |
| Gaiak | Ekonomikoa, zientzia ekonomikoa, gizarte zientzia. |
| Helburuak | • Ekonomiaren kontzeptuaren berri izan.<br>• Ekonomia gizarte zientzia dela ulertu.<br>• Ekonomiak gure bizitzetan duen garrantzia aztertu.<br>• Izaki ekonomiko gisa dugun rolaz gogoeta egin. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Ekonomia, zientzia, gizarte zientzia.<br>**Prozedurak:**<br>• Ekonomiaren hainbat definizio desberdin bilatu.<br>• Zientzia zehatzak eta gizarte zientziak bereizi.<br>• Ekonomiaz eta geure hurbileneko errealitatean duen garrantziaz gogoeta egin.<br>• Proposatutako ariketak egin eta haien emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak:** Ekonomiaren garrantzia baloratu eta gerok dugun paperaz ohartzea. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Ekonomiaren kontzeptuari buruzko teoria irakurri.<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Hartutako erantzunak gogoetagai hartu. |

**1. PROPOSAMENA:** Ekonomia definitzen.

Gogoeta egin proposamen honetaz:

“Ekonomia da gizakiek beren **baliabide eskasak** beren **premia mugagabeei** asebide emateko nola banatzen dituzten aztertzen duen zientzia”.

1. Ados al zaude?
2. Zein da ekonomiaren oinarrizko arazoa?
3. Zer ideia dago definizio honen azpian?

**2. PROPOSAMENA:** Ekonomia EZ da zientzia zehatza.

1. Zerrenda batean jarri zientzia zehatzen kategorian sartzen diren diziplinak.
2. Zer ezaugarri dituzte zientzia zehatzek?
3. Zergatik diogu Ekonomia EZ dela zientzia zehatza?
4. Zer diferentzia da zientzia zehatz baten eta gizarte zientzien artean?

**3. PROPOSAMENA:** Ekonomia denok GARA.

Gogoeta egin proposamen honetaz:

“L´économie ne nous intéresse pas... mais l´économie s´intéresse à nous”.

1. Zer iruditzen zaizu maxima hau
2. Zergatik diogu ekonomia denok garela?



## **4. PROPOSAMENA:** Ekonomia denak GARA

Ondoko proposamenak irakurri eta gogoeta egizu ea arazo ekonomikoen adibideak aurkezten ari zaizkigun.

- Imajina ezazue zuen institutuko zuzendaritzaren kide zaretela. Zuen institutuan, gehienetan bezala, anitz eskasia eta konpondu beharreko gauza badira; baina aurrekontua, berriz, mugatua duzue; hortaz erabaki beharko duzue zeinek duten garrantzi handiena eta horiek lehenetsi.
- Italiako Gobernuak Europako Batasunari baliabide gehiago eskatu dio Mediterraneotik trumilka datozen subsaharatarren arazoari aurre egiteko. François Hollande presidenteak gehiago inplikatzeko eskatu dio Europako Batasunari Errusiaren betoari aurre egin ahal izateko. Putinek, izan ere, hitzarmen komertzialak egin ditu Latinoamerikarekin frutaz eta barazkiz hornitzeko.
- Miren, Batxilergo 1. kurtsoko ikaslea, dilema baten aurrean aurkitzen da. Bere urtebetetzean osotara 300 euro eskuratu ditu familiak eta adiskideek emanda. Diru mordoxka da hori baina ez daki ongi harekin zer egin: alde batetik bidaiarako gorde behar luke, bere adiskideekin bidaia bat egin nahi baitu ikasturtea bukatzean; baina MDNA-k Bartzelonan egin behar duen kontzertura ere joan nahi luke (sarrera = 180 euro + joan-etorriko bidaia 50 euro); eta azkenik arropa ere berritu behar luke, eta gainera herriko festak ere badira...
- Nafarroako enpresa batek erabaki behar du zer egin: beste 4 langile kontratatu ala 10 langileren lana egingo lukeen makina bat erosi.
- Pepito Grillo familiak, kontuari buelta asko eman ondoren, ondorio honetara iritsi da: soldata murrizketa dela medio, gerrikoa estutu beharrean egonen da eta ezin izanen ditu aurrerantzean seme-alabak hipika klaseetara bidali, ez eta hilean behin spa batera joan, baina ordainez, aurrera ere urtero bezala atzerrira bidaia bat egiteko modua izanen dute.
- Espainiako familia arrunt batek, zurea edo nirea bezalako batek, krisia dela-eta erabaki behar du etxeko alogera pagatu ala egunero jan.
- Amaiak 20 euro ditu asteburu honetan gastatzeko eta erabaki behar du zer egin: ikusi duen galtza bat izugarri majoa erosi (18 euro), AFUren kontzertura joan (10 euro), adiskideekin atera (8 euro) ala pipa batzuk erosi, etxean gelditu eta ikasturte bukaerako bidaiarako aurreztu (euro 1).

1. Azter itzazu kasuen atzean dauden kontzeptu ekonomikoak.
2. Gizarte-eragin txikienetik handiera ordena itzazu, arrazoiak emanez.
3. Ikasgelan komunean jarri.

## 1.2 JARDUERA Premiak

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Gelan ikasitakoa oinarri, ikasleek gai izan behar dute premia mota desberdinei antz emateko. |
| Gaiak | Premiak, oinarrizko premiak, bigarren mailako premiak, eskasia, pobrezia. |
| Helburuak | • Premia hitzaren esangura jakin.<br>• Hainbat premia mota daudela ulertu.<br>• Garabidean diren herrien premia nagusiak zein diren aztertu eta herri garatuenekin konparatu<br>• Premia desberdinak eta haien garrantzia gogoetagai hartu.<br>• Pobrezia eta eskasia bereizi. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Premiak, eskasia, pobrezia.<br>**Prozedurak:** proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak:** Herri aberatsen eta herri ez hain aberatsen arteko diferentziez ohartzea. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Premien eta premia moten gaineko teoria irakurri.<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## **1. PROPOSAMENA:** ¿Oinarrizko premiak edo bigarren mailako premiak?

1. Gogoeta egin premia hauetatik zein diren oinarrizkoak eta zein diren bigarren mailakoak:

Lehen Hezkuntza, gorputzeko zatiren bat edertzeko operazioa (belarriak, sudurra, bularrak ...), oinarrizko janariak (ogia, arroza, esnea), azken-azken belaunaldiko mobila, ur edateko ona, etxebizitza duina, kutsatu gabeko alorrak, Messi edo Ronaldoren kamiseta, Levis markako galtzak.



## **2. PROPOSAMENA:** Denok premia berberak ditugu?

1. Gogoetagai hartu zure adineko gazte batek garabidean den herri batean dituen premiak eta zuk dituzunak.

2. Taula bat egin bataren eta bestearen premiekin. Diferentziarik ba al da?

## **3. PROPOSAMENA:** ¿Eskasia *versus* pobrezia?

1. Aztertu zertan diren desberdinak pobrezia eta eskasia.

2. Bilatu “pobrezia” eta “eskasia” hitzen esangura. Kontzeptu baliokideak al dira?

3. Eskasiak baliabide gutxiago dituzten pertsonek bakarrik nozitzen dute?

4. Erantzunak gogoetagai hartu.

## Baliabide eskasak *versus* Premia mugagabeak:

## 1.3 JARDUERA Hautabeharra

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Hautabeharraren kontzeptuaren gainean gogoeta egiteko hainbat proposamen |
| Gaiak | Premia mugagabeak, baliabide mugatuak, eskasia, hautabeharra. |
| Helburuak | • Ulertu zer kontraesan dagoen naturako baliabide eskasen eta pertsonen premia beti mugagabeen artean.<br>• Ulertu nola kontraesan horren ondorioz eskasiaren kontzeptua azaltzen den.<br>• Gogoeta egin naturak zer gaitasun duen gizakien premia gero eta handiagoei aurre egiteko. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Baliabide eskasak, Premia mugagabeak, eskasia, Aukera kostua.<br>**Prozedurak**: Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Geure erantzunbeharraz ohartzea. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Ariketen inguruko teoria irakurri.<br>• Proposatutako irakurgaiak aztertu.<br>• Proposatutako gaien gainean gogoeta egin. |

**1. PROPOSAMENA:** 2030ean gizajendeak bi Lurretako baliabideak beharko ditu:

"Jende gehiegik gehiegi kontsumitzea munduko baliabideak agortzen ari da, berritzen ahal diren baino azkarrago, eta hortaz mundu osoko espezieak arriskuan jarri ez ezik, gizarte guztien ongizatea ere arriskuan jartzen ari da, hala dio World Wildlife Fund (WWF) erakundeak egin berri duen txosten batek, Living Planet Report deituak. Txosten honek agertzera ematen du gizakiak gaur beren jarduerengatik urtero Lur planeta baten halako 1,5 kontsumitzen ari direla. Kontsumismo honen ondorioz biodibertsitatea –kasu honetan animalia ornodunen populazio errepresentatiboak– % 30 batean beheratu da 1970etik mundu osoan. Egoera are larriagoa da tropikoetako eskualdeetan, han lur gaineko espezieen populazioek % 60 bat egin baitute behera eta ur gezak % 70ean.

Londresko Sozietate Zoologikoarekin (ZSL) eta Global Footprint Network-arekin elkarlanean bi urtez behin egiten den txosten honek 2500 espezie islagarriren ia 8000 populazioren osasunari kasu egiten dio. Adibidez, Bengalako putrearenak %50eko beherako latza egin du 2000-2007 bitartean, eta dortoka-laute edo tinglarrarenak %20 bat behera egin du 1989-2002 bitartean. Txostenak bost arrazoi nagusiri egozten dio espezie hauetako populazioen beherakada katastrofiko hauen errua: Habitat galera, gain-esplotazioa, kutsadura, espezie inbaditzaileak eta klima aldaketa. Mehatxu hauek guztiak gizakien kontsumo ohiturekin loturik daude.

"Giza kontsumoaren eskakizunak parte handi batean sektore gako bakan batzuetatik datoz: nekazaritza, basozaintza, arrantza, meatzaritza, ura eta energia. Denak elkarturik, sektore hauek biodibertsitate galeraren faktore zeharbidezkoak dira", azaltzen du txostenak. "Biodibertsitatean duen eraginaren eskala hiru faktoreren mende dago: Osotarako kontsumitzaile kopurua, edo biztanleria, pertsona bakoitzak kontsumitzen duen kopurua eta baliabide natural bakoitza zenbateko efizientziarekin erabiltzen den."



Tropikoak dira mehatxurik handiena duten eskualdea. Nekazaritza industrializatua, abeltzaintza, meatzaritza, petrolioa eta gasa, errepideak bezalako azpiegiturek etengabeko eta eskala handiko baso-suntsitzea ekarri dute tropikoetan, munduko biodibertsitatearen parterik handiena bizi den tokian.

"Baso tropikalen gainbehera argiro ageri da tigrea, elefantea eta errinozeroa bezalako espezie indibidualen populazio joeran, habitat horiek beharrezko baitituzte bizirik irauteko. Riau, Sumatra uharteko probintzian, 25 urtetan arboldegiaren % 65 galdu dugu eta horren ondorioz, tigre populazioek gutxi gora behera % 70 batean behera egin dute, eta elefanteenak % 84an, adieraz-

ten du Sybille Klenzendorf, WWFko Espezieen Kontserbaziorako Programaren zuzendariak prentsaurreko batean. “Derrigor ohartu behar gara eremu hauetan biltzen diren lehengaien kontsumoa, hala nola papera eta palma olioa [...] garrantzi handiko habitatak hondatzen eta gure klima desorekatzen ari dela. Ordu da jasangarriagoko bizimoduak eta produktuak eskuratzeko bideak bilatzeko, geure buruak, geure seme-alabak eta ardura zaizkigun espezieak ere salbatzeko”

Klenzendorfek esaten duenez, ekosistema naturalen galerak ez die soilik tigre, errinozero eta elefanteei eragiten. Giza bizitzak beharrezko dituen naturaren zerbitzuak, “ekosistemaren zerbitzuak” deituak”, hondatzen ari dira, gizakiaren hatz ekologiko gero eta handiagoa dela medio. Ekosistemaren zerbitzu horien barne, ur gezaren eskuragarritasuna, polinizazioa, klimaren egonkortasuna, janari produkzioa, higaduraren eta uholdeen kontrola eta etorkizuneko sendagaiak daude. Gizakiek bizirik irauteko ura ezinbesteko dutelarik, produkzioaren hatz ekologikoaren gaineko txostenak ur berritu-ezinaren iturrietan problemak aurkitzen hasi dira, ustez gero eta okerragora eginen duen joera klima berotzen segitzen badu.

Espero izateko zenez, zenbait eskualdek beste zenbaitek baino gehiago kontsumitzen dute. Adibidez, planetako biztanle guztiek batez besteko amerikarrak adina kontsumituko balute, mundu osoko gizarteak 1,5 Lur gabe, 4,5 Lur behar lituzke jasangarritasunera iristeko.

“Nazio aberatsek Lurraren gaineko bizimodu askoz arinagoa aurkitu behar dute, beren hatz ekologikoa berehala murrizteko, erregai fosilen dependentzia ere hain zuzen barne dela. Ekonomia emergenteek, hazkunde azkarrekoek ere beste hazkunde eredu bat aurkitu behar dute, beren herritarren ongizatea modu jasangarri batean hobetzeko bide ematen dien bat”, idazten du txostenean James P. Leape, WWF Internationaleko zuzendariak.



Sumatrako errinozero bat gatibu Borneon. Sumatrako errinozeroa iraungitzeko zorian da, 200 indibiduo baizik gelditzen ez direla. Argazkia Jeremy Hance.

Esperantza izateko moduko alderdi bat da eskualde epeletan, tropikaletan ez bezala, espezie populazioak oro har gora egiten ari direla. Hala ere txostenak agertzera ematen duenez, hori hein handi batean lehenbiziko Living Planet txostena 1970ean egin zelako da.

“Eskualde epeletako indizea aurreko mendeetara hedatzeko modua bagenu, eta ez hamarkada eskas batzuetara, segur asko epe luzeko beherakada bat erakutsiko liguke, gutxienez sistema tropikaletan azken garaiotan izandakoa bezain latza”, idazten dute egileek. Hala ere, txostenak dioenez, kontserbazio ahaleginek, basoberritzeek eta kutsaduraren hobekuntzak garbiro lagundu dute, epe labur horretan, espezie epelei.

Osotara harturik, gizakien hatz ekologikoa doblatu egin da 1966tik hona eta seguruena 70. urteetako momenturen batean Lurraren gaitasuna gaindituko du. Hatz ekologikoaren hazkunde neurrigabearen parte handi bat berotegi efektuko gasen emisioarekin loturik dago, %35 handitu baitira 1998tik hona. Txostenak dioenez, gizateriak goitik aldaketa latza egin behar du baliabide naturalak kontsumitzeko modua, edo bestela ingurumen arazoak –eta baliabide horiek oinarri dituzten ekonomiek- okerrera eginen dute.

"Egoerak bere honetan irauten badu, pronostikoa oso latza da: NBEk populazio hazkunde, kontzeptua eta klima aldaketarako egiten dituen aurreikuspen moderatuekin ere, 2030. urterako gizakiek bi Lurren gaitasuna beharko dute CO2 hondakinak asimilatu eta baliabide naturalen kontsumoari eusteko", dio txostenak.

2050. urtean, munduko populazioa 9 bilioi pertsona inguruan egonkortzen denean, aurreikusten denez, 2,8 Lur beharko ditugu, gauza guztien orain arte bezala segitzen badute.

Patu horri ihes egin eta benetako egonkortasuna iristeko, txostenak zenbait gomendio egiten ditu, adibidez: Giza ongizatea neurtzeko ez soilik BPG erabiltzea; munduko lur eta itsas azaleraren %15 babestea; lurraren produktibitatea hobetzea; sistema ekonomiko berria erabiltzea ekosistema eta biodibertsitatea baloratzeko; diru-laguntza kaltegarriak kentzea, eta energia ekonomia berdea eraikitzea hartarako erregai fosilen premia agudo desagerraraziz, besteak beste.

"Jasangarritasunak ez luke aukera bat izan behar kontsumitzaileendako. Horiek aukera onak besterik ez lukete izan behar. Zientziak oso argi dio: negozioak egiten gaur zabal dabiltzan moduek azpia jaten diete konpainien lehiakortasunari, eta luzera begira, bizitzaren oinarri diren sistemei", adierazten du Jason Clay, WWFko Merkatuen Aldaketerako Ataleko buruordeak."

**ORAIN ZUK:**

Artikulua minutu batean laburbildu, politiko bat, igogailu batean topatuta, konbentzitu behar bazenu bezala problemaren garrantziaz eta ebazpideak aurkitu beharraz. Simula eta berregin ezazu eszena. ("*Elevator Pitch dinamika*")



## **2. PROPOSAMENA:** Gizakiaren hatz ekologikoa

**INFORMAZIO PIXKA BAT:**

**Hatz ekologikoa** munduko neurpide nagusi bihurtu da gizakiek naturari egiten dioten eskaerarako. Neurtzen du zenbateko lur eta itsas azala behar duen giza populazio batek kontsumitzen duen baliabidea produzitu eta bere hondakinak barrentzeko, nagusi den teknologia erabiliz.

1970eko hamarkadaren bukaeratik gizateria gain-eskari ekologiko batean dago, urteko eskari Lurrak urtero berritu ditzakeen baliabideetatik gora joan baita. Gaur egun, lurrak urtebete eta bost hilabete behar izaten ditu urtebetean erabiltzen ditugun baliabideak berriz sortzeko.

Populazio baten hatz ekologikoa neurtzean –edo gizabanako, hiri, negozio, edo herrialde batena nahiz gizateria osoarena– zehaztu dezakegu zer presio egiten dugun planetaren gainean eta horrek laguntzen digu gure baliabide ekologikoak zuhurkiago kudeatzen eta neurri pertsonal nahiz taldekoak hartzen.

- “La huella ecológica del hombre” dokumentalak, National Geographic-enak aztertu egiten du zenbateko kontsumoa izaten duen mundu garatuko pertsona bakoitzak, sortzen garenetik zahartu arte, ilustrazioen bidez agertzera emanez zer eragina izaten duen pertsona bakoitzak gainerako populazioan eta planetan..

**ORAIN ZUK:**

Honako webgune honetan zeure hatz ekologikoa zein den kalkula dezakezu:

http://www.tuhuellaecologica.org/



## **3. PROPOSAMENA:** Gehiago ala gutxiago izan

**ARRANTZALE ASEA**.



“Iparreko industrial aberatsa asaldatu egin zen ikusi zuenean Hegoko arrantzale bat lasai asko egonean bere ontzian etzanda pipa erretzen. Zergatik ez zara arrantzara atera? -galdetu zion industrialak. Gaurko behar adina arrantza atera dudalako, erantzun zion arrantzaleak.

Eta zergatik ez duzu behar baino gehiago atera nahi? -tematu zen industriala.

Eta zer egingo nuke horrekin? –galdetu zuen orduan arrantzaleak.

Diru gehiago irabaziko zenuke -erantzun zuen-. Eta hartara ontziari motor bat jartzeko modua izango zenuke. Orduan ur sakonagoetara joan eta arrain gehiago harrapatuko zenituzke. Orduan nylonezko sareak erosteko adina irabazi eta haiekin gero eta arrantza eta diru gehiago aterako zenuke. Orduan aberatsa zinateke, ni bezala.

Eta orduan zer egingo nuke? –galdetu zuen berriro arrantzaleak.

Orduan eseri eta bizitzaz gozatzeko beta izango zenuke -erantzun zuen industrialak.

Eta zer egiten ari naiz, ba, oraintxe? -erantzun zuen arrantzale aseak.”

**Anthony de Mello**

1. Zein pertsonaiarekin identifikatzen zara? Zergatik?
2. Gogoeta egin industrialak ematen dituen argudioen gainean.
3. Gogoeta egin arrantzaleak ematen dituen erantzunen gainean.
4. Lurrak bizirik irauteari dagokionez, zein jarrera iruditzen zaizu egokiena.

## 1.4 JARDUERA Aukera kostua

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, ikasleek zenbait proposamenen artean hautatu beharko dute, aukeraren zergatiak azalduz eta aukera horren ondorioak aztertuz. |
| Gaiak | Baliabide mugatuak, Premia mugagabeak, hautabeharra, Aukera kostua. |
| Helburuak | • Hautabeharra eta Aukera kostua kontzeptuak ulertu.<br>• Gure aukeren ondorioak aztertu eta gogoetagai hartu. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Hautabeharra, Aukera kostua.<br>**Prozedurak**: Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Gure aukeren ondorioez ohartzea. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Hautabeharra eta aukera kostua bezalako kontzeptuen gaineko teoria irakurri.<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

**1. PROPOSAMENA:** Gure aurrekontua:

Imajina ezazu zure asteko paga 30 €koa dela. Jakinik zer prezio duten egin ditzakezun jarduera desberdinek, gogoeta egin nola kudeatuko zenituzkeen zeure baliabide eskasak.

| KONTZEPTUA | PREZIOA |
|---|---|
| Zinea | 8 € |
| Bazkaria edo afaria jatetxean adiskideekin | 20 € |
| Bokata bazkari edo afaria adiskideekin | 5 € |
| Txutxeak | 5 € |
| Telefono sakelakoa | 5 € |
| Diskotekara ateratzea | 8 € |
| Musika kontzertua | 18 € |
| GGKE bati dirua eman | 5 € |

## **2. PROPOSAMENA:** Gure institutua

Demagun zuen institutuko zuzendaritzaren kideak zaretela. Zuen ikastetxean, gehienetan bezala, eskasia eta egin beharreko konponketa asko daude; baina aurrekontu mugatua duzue eta hortaz gauzarik behinenak zein diren erabaki eta lehenetsi behar dituzue.

Udan, ikastetxeko irakasle batek, Albertok, trafiko istripua izan zuen eta ezin ibili zela gelditu zen. Gurpilekiko aulkian etorri behar du ikastetxera baina, eraikina hartarako egokitu gabe dago. Gainera, aurten Patrizia matrikulatu da, ikasle itsua, eta lehenbiziko aldia baita, ikastetxeak ez du inolako braille materialik ikasgelan. Patiora atera eta ikusiko dugu egoera negargarrian dela; ez du lehorperik eta zuloz beterik dago eta hortaz euri pixka bat egin orduko putzu handiak egiten dira eta denek leporaino blai eginda bukatzen dute. Ordenagailuak zaharrak dira: USB sarrerarik ere ez dute, hortik atera kontuak, ez eta Internetekin lotzeko aukerarik ere. Ez legoke gaizki, bestalde liburutegia liburu gehiagoz hornitzea, jantokia konpontzea...

Bestalde, azken urteetan, ageri da ikasleak gero eta zerriagoak direla: atsedenaren ondoren patioa txerritegia ematen du, bai eta ikasgelak, bainugelak eta abar ere... garbitzaile kopurua ere handitu behar litzateke, hortaz.

Ondoren, zerrenda bat aurkezten dizuegu ikastetxean egin behar liratekeen konponketen prezioekin; kontuz, ordea! 5.000 € besterik ez duzue!!!!!

1. Zertan oinarritu zarete aukeratzeko?
2. Nola konponduko zenituzkete ikastetxeko arazo batzuk?
3. Hobe da dirua pertsona bakar bati on eginen dion gauza batean gastatzea ala, aitzitik, gehienei on eginen dien zerbaitean gastatzea hobe? (gogoan hartu Alberto eta Patriziaren kasuak).

| KONPONDU ETA EROSI BEHARREN ZERRENDA | PREZIOA (€) |
|---|---|
| Ordenagailu berriak | 6.114,12 |
| Braille materiala | 4.505,59 |
| Jantokiko konponlanak | 4.505,59 |
| Gurpilekiko aulkirako arranpa | 4.498,62 |
| Patioko konponlanak | 6.010,12 |
| Liburutegiko materiala | 1.202,02 |
| Igogailua | 5.409,11 |
| Garbitzaile gehiago | 9.616,19 |

## **3. PROPOSAMENA:** Kendu liteke gosea mundutik?

Gosea mundutik kentzeko 50.000 milioi $ beharko balira, eta kontuan harturik 2008az gero, krisia zela-eta, finantza entitate desberdinek hainbat gobernutatik 600.000 milioi dolarretarainoko diru-laguntzak jaso izan dituztela, gogoeta egin galdera hauen gainean:

1. Arazo ekonomiko baten adibidea aurkezten ari zaigu?
2. Zein litzateke kasu horretan aukera kostua?
3. Esan liteke munduko gosea kentzea egin daitekeen gauza dela?
4. Zer esan geniezaieke munduan gosez dauden 1.200 milioi jende horiei?
5. Guk ere erantzunbeharrik ba al dugu?
6. Arrazoitu zure erantzunak.

Arcadio Oliveresek emandako datuak
Solasaldia: krisi eta esperantzaz beteriko mundua
Iruña, 2012ko abendua

## **4. PROPOSAMENA:** Denbora

Denbora baliabide eskasaren oso adibide argia da. Ez soilik mugatua delako, baizik eta horrez gain ez dakigulako zenbat dugun ez eta noiz ahituko zaigun ere. Gure gustuko zerbait egiten ari garenean, iruditzen zaigu denbora laste-rregi pasatzen dela; asperturik gaudenean, berriz, iruditzen zaigu ez dela be-har bezain laster pasatzen. Baina segundo eta minutu guztiek, ordea, iraupen berbera dute.

Era berean, beti iruditzen zaigu ez dugula behar adina denborarik egin nahi genukeen guztia egiteko eta, beraz, geure denbora nola gastatu erabaki be-harrean gaudela. Egin nahi genituzkeen jarduera desberdinen artean hautatu beharra dago, ez baitugu denborarik denak egiteko. Modu berean, egin gabe uzten ditugun jarduera guztiak gure aukera kostua izanen dira.

Demagun asteburu honetan 5 ordu libre dituzula eta egin nahi dituzun hain-bat jarduera dituzula.



1. Gogoeta egin libre dituzun bost ordu horiek nola “gastatuko” zenituzkeen, honako taula betez.
2. Zehaztu ezazu zein diren zure lehentasunak eta azaldu horien zergatia.
3. Zein litzateke aukera kostua?

| | |
|---|---|
| Familiari (aitona-amonak, lehengusuak...) bisita egitea, aspalditik ikusi gabe baitituzu | |
| Interneten sartu eta adiskideekin txateatu | |
| Etxean gelditu senideen kontu | |
| GGKE edo antzeko batekin lan egin | |
| Ikaskide bati bere egitekoetan lagundu | |
| Siesta egin | |
| Gela txukundu | |
| Adiskideekin atera | |
| Zure gelan musika entzun | |
| Ezer berezirik ez egin: sofa, TB, errelaxa... | |

## 1.5 JARDUERA Sistema ekonomikoak

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, ikasleek aztertu eginen dute sistema ekonomiko desberdinen on-gaitzak. |
| Gaiak | Sistema ekonomikoak, Merkatu-ekonomia, ekonomia planifikatua, ekonomia mistoa. |
| Helburuak | • Sistema ekonomiko desberdinak aztertu, bakoitzaren on-gaitzak gogoetagai hartuz. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Sistema ekonomikoa, Merkatu-ekonomiaren sistema, Plangintza zentralizatuaren sistema, sistema mistoa.<br>**Prozedurak**: Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Dauden sistema ekonomiko bakoitzaren on-gaitzez ohartzea. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Sistema ekonomikoen eta haien tipologiaren gaineko teoria irakurri<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## **1. PROPOSAMENA:** Zer eta norentzat produzitu?

| | MERKATU-EKONOMIA | PLANGINTZA ZENTRALA |
|---|---|---|
| ***Zer produzitu?*** | Etekina ematen duen guztia.<br>(Etekin ahalik eta handienaren printzipioa). | Estatuak erabakitzen duena.<br>(Helburu politikoak) |
| ***Nola produzitu?*** | Kosturik txikienaren irizpidea aintzat hartuz. | Estatuak erabaki bezala. |
| ***Norentzat produzitu?*** | Pagatu dezakeenarentzat. | Denentzat |

1. Zer diferentzia ikusten duzu bi sistema ekonomikoen artean?

2. Bakoitzean zer on-gaitz ikusten dituzu?




## **2. PROPOSAMENA:** Sistema ekonomikoen printzipioak

1. Zer sistema ekonomikorekin lotuko zenituzke honako helburu sozio-ekonomikoak? Arrazoitu erantzunak:

**Efizientzia, Zuzentasuna, Justizia, Askatasuna**

2. Gelarekin komunean jarri.

**3. PROPOSAMENA:** Zenbait kasu praktiko:



**EE BB: % 1 eta kaosa**

Joseph Eugene Stiglitz ekonomista da eta Columbian, New Cork, irakasten du. 2008an munduan aipamen gehien izan zituen ekonomista izan zen. Handik zazpi urtera Ekonomiaren Nobel saria jaso zuen. Giza garapenaren gaineko azken txostenaren ildotik, ohi baino are gogorragoko artikuluak idatzi izan ditu: "Estatubatuarrek kasu handia egiten diete aberastasuna elite txiki baten eskuetan kontzentratzen duten erregimen zapaltzaileen kontrako protestei. Hala ere, geure demokrazian, populazioaren % 1ek nazio osoko irabazpideen ia laurdena beretzat du".

Hala ere ekonomistak ez dira ados jartzen EEBBetako gero eta handiagoko desberdintasun ekonomiko eta sozialen arrazoiak zein diren baloratzeko. Globalizazioa, Teknologia eta eredu berriak, aldaketa sozialak, sindikatuen gainbehera... horra haustura hori esplikatzen laguntzen duten zenbait parametro.

Populazioaren % 1ek etxe hoberenak, hezkuntza hoberena, mediku hoberenak eta bizimodu hoberena izateak munduko beste toki batzuetan eztanda sozial batera darama.

Erradiografia honek ondorio hau iradokitzen digu: Amerikar ametsa bukatu da, desoreka geroz eta handiagotzearen ondorioa segregazio sozial handiagoa da, aukera berdintasuna, gizarte diskurtsuaren oinarri baitzen, "urratzen ari da", Robert Putnam soziologoaren hitzetan esateko. Horrek, Robert Reichemen ustez (Ford, Carter eta Clinton presidenteen aholkularia), "aislazionismo, natibismo eta xenofobia gehiago sortzen du"

Dov Seidman filosofoak the way-of-life crises deitzen duenaren aurrean ginateke. Amerikarren bizimodua, halakorik oraindik bada batere, erabateko krisian da. Askoz grafikokiago adierazi du Cornel Westek, beste filosofo estatubatuar batek: "Orain denak gara beltzak". Salbu eta, jakina, zorioneko % 1 hori.

Josu Juaristirenetik moldatua
ZAZPIKA



**ORAIN ZUK:**

1. Zer sistema ekonomiko mota dago Estatu Batuetan? Gogora ekarri sistema ekonomiko horren ezaugarri orokorrak.
2. Zer datu ematen dira Estatu Batuetako ekonomiaren gainean? Aurreko galderan aipatu ezaugarrietatik bat edo bat ageri al da?
3. Defini ezazu "amerikar ametsa". Zer iritzi du egileak haren egiatasunaz?

## 1.6 JARDUERA Elkartasun Ekonomia

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, ikasleek aztertu eginen dute Elkartasun Ekonomiak zer ezaugarri dituen eta haren on-gaitzak gogoetagai hartuko. |
| Gaiak | Elkartasun Ekonomia. |
| Helburuak | • Aztertu Elkartasun Ekonomiaren ezaugarriak eta haren on-gaitzak gogoetagai hartu. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Elkartasun Ekonomia.<br>**Prozedurak**: Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Elkartasun Ekonomiaren on-gaitzez ohartzea eta baloratzea zertan den diferentea sistema ekonomiko tradizionalen aldean. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Sistema ekonomikoen eta haien tipologiaren gaineko teoria irakurri.<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## **1. PROPOSAMENA:** Elkartasun Ekonomiaren printzipioak

### ELKARTASUN EKONOMIAREN PRINTZIPIOAK

- **BERDINTASUNA**: Harremanen arteko berdintasuna bultzatu eta enpresa nahiz erakundearen jardueretan parte hartzen duten pertsona guztien intereseі modu orekatuan asebidea eman.
- **ENPLEGUA**: Enplegu egonkorra sortu, bereziki bultza eginaz gizartetik kanpo utziak izateko egoeran edo arriskuan dauden pertsonek lana izan dezaten, pertsona bakoitzari lan baldintza eta irabazpide duinak bermatuz, beren garapen pertsonala eta erantzule bihurtzea sustatuz.
- **INGURUMENA**: ingurumena errespetatzen duten ekintza, produktu eta produkzio moduak faboratu.
- **ELKARLANA**: Elkarren lehia gabe, elkarlana sustatu erakundean eta kanpoan.
- **IRABAZI ASMORIK EZ**: Elkartasun ekimenen helburua da gizakiak eta gizartea bultzatzea; hortaz, funtsean irabazi asmorik gabekoak dira. Etenik bada, gizarteari bihurtuko zaio gizarte proiektuei lagunduz, edo beste elkartasun ekimen batzuei, edo garapena laguntzeko programei...
- **KONPROMISOA**: Elkartasun ekimenek konpromisoa hartzen dute gertaleku duten gizarte ingurunearekin, eta horrek beste erakunde batzuekiko elkarlana eskatzen du eta bai sareetan parte hartzea ere, elkartasun ekimen jakin horiek eredu ekonomiko alternatibo bat sortu ahal dezaten.



### ORAIN ZUK:

1. Taldeka, talde bakoitzak printzipio bat bilatu eta haren gaineko informazioa bilatu beharko du.
2. Txandaka, talde bakoitzak klasearen gainerakoei beren printzipioan” azalduko die.
3. Talde guztiek zenbait neurri aurkeztu beharko dituzte beren printzipioa iristeko, eta klaseari azaldu.
4. Haietatik zein iruditzen zaizu errazena iristeko. Zergatik?
5. Haietatik zein iruditzen zaizu zailena iristeko? Zergatik?

**2. MULTZOA**

## Jarduera produktiboa

- Elkartasun ekonomiag, haren helburuak eta eginkizunak.
- Produkzio prozesua eta produkzio faktoreak.
- Lanaren banaketa teknikoa, produktibitatea eta elkarren dependentzia.
- Produkzioaren funtzioa.
- Produkzio kostuak eta onurak eskuratu eta aztertzea.
- Eduki ekonomikoko datu eta grafkoak irakurri eta interpretatzea.
- Produkzio sistemako nahiz produkzioaren antolaketako aldaketen inguruko gertaera ekonomikoak aztertu globalizazioaren testuinguruan.

### *Arlo teorikoa*

LJarduera ekonomikoaren helburua da gizakien premiei asebidea emateko balioko duten ondasun-zerbitzuak lortzea, hartarako, aprobetxamendu handienaren printzipioa aintzat hartuz, eskura ditugun baliabide eskasak erabiliz.

Era berean, jarduera ekonomikoa da gizakiak garatzen duen jarduera oinarrizkoa, eta erosi, saldu, trukatu maileguan eman, lan egin, kontsumitu, produzitu, banatu eta abar bezalako eragiketa arruntetan mamitzen da... produkzioa, kontsumoa eta banaketa dira garrantzi handiena dutenak.

Eragile ekonomikoak dira ekonomiaren protagonistak, haiek burutzen baitituzte jarduera ekonomiko desberdinak. Hiru talde bereiz ditzakegu: Familiak, enpresak eta sektore publikoa. Haien artean harreman ekonomiko fisiko nahiz diru bidezkoak izaten dira, errentaren jario zirkular honetan laburbil daitezkeenak:



Jarduera ekonomikoa burutara emateko, produkzio faktoreak beharrezkoak dira, hau da: Gizakiak bere premiei asebidea emateko erabiltzen dituen baliabide multzoa. “inputs” ere deitzen zaie. Tradizioz hiru taldetan sailkatu dira produkzio baliabideak: Lurra (baliabide naturalak), lana (giza kapitala) eta kapitala (makinak).

Produkzio faktoreek ez dute beti garrantzia erlatibo berbera izan produkzio prozesuetan. Gutxi industrializatua den ekonomia batean, lurra da faktorerik esanguratsuena. Ekonomia industrializatuetan, ordea, lur faktoreak garrantzia galdu eta lan eta kapital faktoreek irabazi egiten dute. Halatan, azken bi mende honetan, lurra produkzio baliabide nagusi zen ekonomia batzuetatik atera eta lan eta kapital faktoreak nagusitu diren gaur bezalako ekonomietara pasatu gara. Faktore horiek produkzio kostua osatzen dute, baina agian ez guk pentsa genezakeen kopuruan. **(2.1 JARD.)**




Herrialde batean osotara egiten diren jarduerak tradizioz hiru sektore ekonomikotan sailkatzen dira: lehen sektorea, non naturarekin lotura duten jarduerak sartzen diren hala nola nekazaritza, abeltzaintza, baso lanak, arrantza eta meatzaritza; bigarren sektorea, non produkzio baliabide bat eraldatzen duten jarduera guztiak sartzen diren, hala nola eraikuntza, ehungintza, metalgintza, elikadura ; eta hirugarren sektorea, non zerbitzuak ematearekin lotura duten jarduera guztiak sartzen diren, hala nola hezkuntza, osasuna, supermerkatuak, kontzesionarioak...

Herrialde ez hain garatuetan lehen sektoreko jardueraren ehunekoak oso handiak dira; herrialde aurreratuagoetan, berriz, ehunekorik handiena hirugarren sektoreko jardueretan egoten dira.

Enpresek, produkzio baliabideak oinarri harturik, ondasun-zerbitzu horiek produzitu eta banatzeko ardura hartzen dute, kontsumoaren bidez gizakiaren premiei asebide emateko moduan. Enpresen funtzioak hirutan laburbildu ohi dira: Ondasun-zerbitzuak produzitzea, enplegua sortzea, eta beraz aberastasuna eta berrikuntzak bultzatzea.

***Enpresa mota*** asko daude eta sailkapen asko ere bai: tamainaren arabera, jatorriaren arabera, jarduera sektorearen arabera edo forma juridikoaren arabera. Enpresa guztiek izaten dute existitzeko arrazoi bat, hau da, helburu bat. Tradizioz teoria klasikoan, helburu hori etekinak ahalik eta handienak izatea izaten zen; gaur, ordea, beste helburu batzuk aipatzen dira, hala nola merkatuko hazkundea eta boterea, egonkortasuna eta ingurumenera egokitzea eta ***izaera*** sozialeko beste helburu batzuk. **(2.2 JARD.)**

Enpresen helburuak bilakatuz eta aldatuz joan diren modu berean, gizarteak ere bilakatu dira eta enpresei exijitu diete sentikortasun bat izan dezaten jarduera ekonomikoaren ondorio negatiboen gainean: Horri erantzunbehar soziala deritza, zeinak enpresei eskatzen dien beren gain har ditzaten beren jardueraren garapenak sortzen dituen kostu sozialak. Hona hemen erantzunbehar sozial horrekin lotutako zenbait eremu: ingurumena errespetatzea, oreka ekologikoa aldatzea, baliabide ezin berrituen agortzea, laneko eritasunak, langabezia, kontsumitzailearen babesa...

Enpresekin lotutako beste fenomeno batzuk, adibidez, honakoak izan litezke: enpresak nazioartekotzea eta deslokalizazioa, zeinek, globalizazioaren ondorioz, gero eta handiagoko garrantzia hartu duten.

## *Jarduerak*

### 2.1 JARDUERA Kamiseta baten kostua

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, globalizazioa eta deslokalizazioa bezalako kontzeptuak eta ekonomian dituzten ondorioak gogoetagai hartu . |
| Gaiak | Globalizazioa, deslokalizazioa, enpresaren erantzunbehar soziala, merkataritza zuzena. |
| Helburuak | • Globalizazioa eta deslokalizazioa bezalako kontzeptuak ezagutu.<br>• Merkatu lokal batetik merkatu global batera nola pasatzen den ulertu.<br>• Deslokalizazioak enpresen ikuspuntutik dituen on-gaitzak aztertu.<br>• Deslokalizazioak gizarte ikuspuntutik dituen on-gaitzak aztertu .<br>• Merkataritza zuzenaren oinarria ezagutu. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Globalizazioa, deslokalizazioa, enpresaren erantzunbehar soziala, merkataritza zuzena.<br>**Prozedurak**:<br>- Globalizazioa eta deslokalizazioaren gaineko definizio desberdin batzuk bilatu.<br>- Globalizazioaren on-gaitzak aztertu.<br>- Deslokalizazioaren on-gaitzak aztertu.<br>- Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: kontsumitzaile garen partez gure paperaren garrantzia baloratu. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Globalizazioa eta deslokalizazioa bezalako kontzeptuen gaineko teoria irakurri.<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

**INFORMAZIO PIXKA BAT:**

Azken 30 urte honetan, globalizazioaren fenomenoari esker, nazioarteko enpresak sendotu dira sistema ekonomikoaren protagonista paperean, eta geroz eta handiagoko eragin politikoa dute; holding handien bilakaera izan da sektore bakoitzeko jarduerarik errentagarriena soilik beretzat gorde eta gainerako guztia kanporatzen duten firmak bihurtzea izan da, azpi kontratazio sare usuen bitartez.

Ehungintza izan da deslokalizazioa gehien orokortu eta gehien ageri den sektoreetako bat. Enpresa handi askok ez dute joskintza lantegi bakarrik ere bere. Diseinuan eta banaketan espezializatu dira, jantzigintza bera enpresa azpikontratatuei utzirik, lan kostua oso apal duten herrialdeetan kokatuak. Hartara, negozioaren zatirik irabazgarriena beretzat gorde (banaketa) produkzio katean duten esku-hartzea mugatu, eta aldi berean nazioartekotu ere egiten dira, harik eta gero eta handiagoko ehunki banaketako taldeak osatu arte, mundu globalizatu osoko kaleetan ageri direnak.

Merkataritza zuzenaren koadernotik moldatua

Ehungintzaren gaineko monografikoa, 2015eko maiatza

**ORAIN ZUK:**

Tirar del hilo.... txosten osoa irakurri...




1. Aztertu kamiseta honen gastuak nola banatzen diren eta haien gainean gogoeta egin.
2. Nor da irabazlea? Zer portzentaia gelditzen dira jatorriko herrian?
3. Pertsona bakoitzak Espainian urtean 437 euro inguru gastatzen baditu arropa erosteko, zein da osotara sortu den onura portzentaia?
4. Nola eragiten die banaketa horrek langileei?

## 2.2 JARDUERA Ekonomia sozialeko enpresak

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Krisi garaietan forma juridiko hauek izandako bilakaeraren gainean prentsan agertu den informazioa oinarri, enpresa mota honetan dauden elkartasun oinarriak ezagutu. |
| Gaiak | Forma juridikoak, Ekonomia sozialeko enpresak, Kooperatibak, lan sozietateak, enpresaren onura. |
| Helburuak | Helburu bakarra etekinak ahalik eta handien izatea ez duten beste enpresa mota bat ezagutu |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Forma juridikoak, Ekonomia sozialeko enpresak.<br>**Prozedurak**: Prentsa aztertzea, zeure inguruan informazioa bilatzea.<br>**Jarrerak**: Ekonomia sozialaren eginkizuna baloratu eta gure ingurune ekonomiko-sozialean duen eragina preziatu, etekin handienen helburuaren alternatiba bezala. |
| Materiala | Prentsa artikulua, Webgunea ikusi, Idazteko materiala. |
| Agiriak | Prentsa artikulua.<br>Cepes webgunea.<br>Galdeketa.. |
| Garapena | • http://www.cepes.es/ (Confederación empresarial Española de la Economia Social) webgunea bisitatu.<br>• Kooperatiba baten definizioa eta oinarrizko ezaugarriak bilatzea.<br>• Sozietate anonimo laboral baten definizioa eta oinarrizko ezaugarriak bilatu.<br>• Prentsako berriak irakurri krisiaren denboran Ekonomia sozialeko enpresek Nafarroan izan duten bilakaeraren gainean.<br>• Irakurriaren gaineko galdeketari erantzun.<br>• Lehen deskribatu bezalako ekonomia sozialeko enpresa mota bakoitzaren lagin bat zeure herrian ba ote dagoen ikertu eta informatu. |

**INFORMAZIO PIXKA BAT:**

Enpresak, beren forma juridikoaren arabera hiru motakoak izan daitezke: pertsonalistak, kapitalekoak edo ekonomia sozialekoak:

Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social, dioenez, honako printzipio hauek orientatzen dituzte Espainian Ekonomia sozialeko enpresak:

- Pertsonek eta enpresaren helburuak lehentasuna izanen dute kapitalaren gainean; printzipio hau kudeaketa autonomo eta garden, demokratiko eta parte-hartzaile batean gauzatuko da, erabakiak hartzerakoan pertsonak eta lanari egiten dizkioten ekarpenak eta entitateari egindako zerbitzuak gehiago aintzat hartuz enpresaren kapitalari egindako ekarpenak baino, edo enpresa helburuaren arabera.
- Jarduera ekonomikotik ateratako etekinak gehienbat kideek emandako lanaren eta egindako zerbitzu edo jardueraren arabera aplikatuko dira eta, halakorik bada, entitateak duen helburuaren arabera.
- Barneko eta gizartearekiko elkartasuna bultzatzea: bertako garapena, gizon-emakumeen arteko aukera berdintasuna, gizarte kohesioa, gizarteaz landa uzteko arriskuan diren pertsonak barne hartzea, lantoki egonkorrak eta kalitatekoak sortzea, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea eta jasangarritasuna faboratuz.
- Botere publikoekiko independentzia.

**ORAIN ZUK:**

Bisita ezazu www.cepes.es/ (Confederación Española de Empresas de Economía social) webgunea eta honako galderak erantzun:

1. Zer da kooperatiba bat?
2. Zer printzipio ditu gidari?
3. Zer da Sozietate Laboral bat?
4. Zer ezaugarri ditu?

Irakurri artikulu hau, 2015eko otsailaren 16ko *Diario de Noticias*-en argitaratua:

**Diario de Noticias** – Lunes, 16 de febrero de 2015 **17**

# *Economía*

## 348 cooperativas operaban en Navarra en 2014, un 33% más que hace diez años

El número de **sociedades laborales** cae un 35,2%, al pasar de las **511** a las **331** ● La economía social emplea a **9.771 personas** ● Estas empresas **facturaron unos 700 millones** el ejercicio pasado

*Sagrario Zabaleta*
*Javier Bergasa*



**Una persona trabaja en Mapsa, cooperativa que celebró en noviembre el 3º Día de la Economía Social.**

**PAMPLONA** – En la última década, la figura jurídica de las empresas de economía social en Navarra ha dado un vuelco espectacular en favor de las cooperativas y en detrimento de las sociedades laborales. La Comunidad sumó 348 cooperativas en 2014, un 33% más que en 2004; en cambio, las sociedades laborales sufrieron un descenso del 35,2%, al pasar de las 511 de ese ejercicio a las 331 actuales, según los datos del Ministerio de Empleo y Seguridad Social.

En relación al empleo, las primeras experimentaron un crecimiento del 55%, de los 4.786 trabajadores a los 7.411, y las segundas, una bajada del 45,5%, de los 4.336 a los 2.360. Aunque las cooperativas, a pesar de ser menos entre 2004 y 2012, siempre crearon más puestos de trabajo que las sociedades laborales.

¿Por qué se ha producido este cambio tan significativo? Todos los socios de una cooperativa pueden votar a la hora de tomar decisiones; en cambio, en las sociedades laborales, ese derecho depende del capital que ostente cada trabajador. Además, las sociedades laborales solo existen en España, no así en el resto de Europa, y el mayor número de trabajadores lo generan las cooperativas.

**POR PRIMERA VEZ SUCEDIÓ EN 2013** Estas tres realidades han provocado que las cooperativas superen a las sociedades laborales en número. Y es que son más afines al espíritu de la economía social donde la participación es igual para todos, con una mayor flexibilidad para adaptarse a las diferentes situaciones del mercado por la propia autorregulación de los socios, entre otros motivos. Así, por primera vez en 2013 se registraron 360 cooperativas y 341 sociedades laborales, tendencia que se mantuvo durante el pasado ejercicio, cuando las primeras sumaron 348 y las últimas, 331.

El presidente de la Asociación Navarra de Empresas Laborales (ANEL), Ignacio Ugalde, insiste: "Las cooperativas ostentan esa naturaleza viva de que todos somos iguales".

De esta forma, entre 2004 y 2014, las sociedades laborales cerraron por la crisis económica o porque se transformaron en cooperativas o en sociedades limitadas; y el empleo que aglutinaban este tipo de empresas se destruyó o parte pasó a contabilizarse dentro de las cooperativas.

Las empresas de economía social se extienden por todos los sectores, primario, industria y servicios, y se ubican principalmente en la Comarca de Pamplona. El ejercicio pasado se cifraron 679 empresas (348 cooperativas y 331 sociedades laborales), con 9.771 trabajadores, un 8% más que en 2013. Traducido en números absolutos, 720 ocupados más gracias a las cooperativas, a pesar de que desaparecieron doce. Sin embargo, el resto generó más empleo por el aumento de la actividad ante los leves síntomas de mejoría de la economía foral. Las 679 empresas facturaron más de 700 millones de euros, de los que 210 procedieron de la actividad en el exterior. Además, todas ellas invirtieron 153 millones durante la crisis para mejorar la competitividad de sus negocios, según los datos de ANEL. ●

## En 2015 ya se pueden crear cooperativas con solo dos personas

Hasta ahora, la normativa impedía que un negocio estuviera formado por este mínimo de socios

**PAMPLONA** – Por medio de la ley publicada en el BON el 2 de febrero y en el BOE el pasado viernes, en pocas semanas dos personas, con una idea de negocio, se podrán asociar en una microcooperativa. La norma fue impulsada por ANEL y apoyado por el Parlamento.

Esta asociación detectó la existencia de emprendedores que querían constituirse como cooperativa en el sector servicios para atender a clientes locales. Pero, no podían porque las iniciativas procedían solo de dos personas. Hasta ahora, la normativa exigía un mínimo de tres para la creación de este tipo de empresas de economía social, un obstáculo que se ha solucionado a través de la ley de microcooperativas, que aprueba que un mínimo de dos emprendedores, con una aportación a partes iguales del capital, pueden comenzar a trabajar en apenas 48 horas. Estas microcooperativas permiten un máximo de diez socios trabajadores de duración indefinida, a jornada completa o a tiempo parcial. Durante siete años, estos negocios podrán contratar a un máximo de cinco empleados indefinidos por cuenta ajena, número que se podrá superar por necesidad, aunque con un límite de tiempo. – S.Z.

**COOPERATIVAS**

| Años | Número de cooperativas |
|---|---|
| 2004 | 261 |
| 2005 | 277 |
| 2006 | 271 |
| 2007 | 309 |
| 2008 | 321 |
| 2009 | 316 |
| 2010 | 347 |
| 2011 | 343 |
| 2012 | 337 |
| 2013 | 360 |
| 2014 | 348 |
| **Años** | **Número de trabajadores** |
| 2004 | 4.786 |
| 2005 | 4.917 |
| 2006 | 5.148 |
| 2007 | 5.593 |
| 2008 | 6.500 |
| 2009 | 6.293 |
| 2010 | 6.700 |
| 2011 | 6.794 |
| 2012 | 6.658 |
| 2013 | 6.688 |
| 2014 | 7.411 |

**SOCIEDADES LABORALES**

| Años | Número de sociedades |
|---|---|
| 2004 | 511 |
| 2005 | 520 |
| 2006 | 498 |
| 2007 | 496 |
| 2008 | 456 |
| 2009 | 430 |
| 2010 | 415 |
| 2011 | 396 |
| 2012 | 370 |
| 2013 | 341 |
| 2014 | 331 |
| **Años** | **Número de trabajadores** |
| 2004 | 4.336 |
| 2005 | 3.923 |
| 2006 | 4.051 |
| 2007 | 4.061 |
| 2008 | 3.631 |
| 2009 | 3.161 |
| 2010 | 3.007 |
| 2011 | 2.791 |
| 2012 | 2.481 |
| 2013 | 2.363 |
| 2014 | 2.360 |

Fuente: Seguridad Social

**EL TOTAL**

● **Balance de la década.** Actualmente hay 679 empresas de economía social y 9.771 trabajadores por las 772 de 2004, con 9.122 empleados, según el Ministerio.

1. ¿Cómo han evolucionado las empresas de economía social en la última
   Nola bilakatu dira ekonomia sozialeko enpresak azken hamarkadan?

2. Zergatik izan da halako aldaketa handia?

3. Zer dira mikrokooperatibak?

4.- Bila ezazu zeure herrian sozietate laboral baten eta kooperatiba baten adibideak. Ikas ezazu zer jarduera eta zer jardunbide izaten duten.

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?



Gogoeta egin geroan enpresa bat muntatu nahi baduzu zer on-gaitz izanen lituzkeen ekonomia sozialeko forma juridiko bat hautatzeak.

**3. MULTZOA**

## Merkatua eta prezio sistema

- Eskariaren kurba. Eskariaren kurbako mugimenduak eta eskariren kurbako tokialdatzeak. Eskariren malgutasuna. Eskaintzaren kurba.
- Eskaintzaren kurbako mugimenduak eta Eskaintzaren kurbako tokialdatzeak. Eskaintzaren elastikotasuna.
- Merkatuaren oreka.
- Merkatu egitura eta lehiaketa eredu desberdinak. Konkurrentzia perfektua. Konkurrentzia ez perfektua. Monopolioa. Oligopolioa. Konkurrentzia monopolistikoa.

### *Arlo teorikoa*

Ondasun-zerbitzuek gure premiak asetzen dituzte. Lanaren banaketak eta espezializazioak trukea faboratu eta behartu dute batek behar dituen baina produzitzen ez dituen ondasunak eskuratzeko trukea erabiltzera. Merkatua da truke horiek egiten direneko tokia. Truke horiek, jakina, bi alderdiak, ondasunduna eta ondasun-eskatzailea adostuz gero soilik egiten dira.

Tradizioz, enpresak izan dira, produkzio eginkizunaren bitartez, produkzio faktore edo baliabideak ondasun-zerbitzu bihurtzeko gaitasuna dutenak, familiek beren premia askotarikoak asetzeko nahi dituztenak.

Familiek, ordea, ezin izaten dute nahi adina ondasun kontsumitu, zeren bere lanetik, kapitaletik eta bere baliabide naturaletatik ateratzen dituzten etekinek osatzen baitute familiako errenta. Beraz, ondasun baten eskaria hainbat faktoreren mende dago: Ondasun horren prezioa, gizakiaren errenta, bere gustuak eta lotura duten ondasunen prezioa ordezkagarritasun edo osagarritasun lotura).

Enpresek ere, produkzio faktoreen prezioa, teknologia eta hurbileko egoera ekonomikoaz duten perspektiba hartuko dituzte aintzat beren ondasun-zerbitzuak produzitzeko.

Ondasun baten eskari-eskaintzek bere prezioarekin duten lotura momentu batez mugatzen badugu, familien eros-desioek eta enpresen sal-desioek bat egiten duten puntuak seinalatzen du zein den egoerarik hoberena, denak kontent egoteko modukoa, zeren merkatua produktuz hustu eta, aldi berean, bi alderdiek nahi dutena lortzen baitute.




Hala ere, ondasun-zerbitzuak esleitzeko mekanismo honek ez ditu kontuan hartzen hainbat limitazio edo ***merkatu hutsegite***[1]. Kasu gehienetan enpresa baten jarduerak kanpo ondorioak izaten ditu, hirugarren batzuei eragiten dietenak. Ondorio negatibo horiek gizarte kostu batzuk izaten dituzte, hots, ondorioak sortu dituzten enpresak ez beste pertsona batzuek jasan beharreko kostuak. Hartara, kalte horien egileek ez dituzte kasu horiek beren kostu pribatuetan sartzen, eta haien lekuan kostuak jasaten ditugunok gara aurre egin behar diegunak.

Airearen kutsadura, hondakinak ibaietara botatzea, segurtasun eta higieneko arau oinarrizkoak ez konplitzearen ondoriozko lan istripuak, aurrezkirik handiena beste helbururik ez duten enpresetan urtez urte beren akzionistentzat onura handiak izan arren langileak kaleratzea, horra ***kanpokotasun negatibo***en beste hainbeste adibide; horiek oso gutxitan sartzen dituzte enpresek beren produkzio kostuetan ez eta, beraz, egiten dituzten produktuen prezioan ere. **(3.1 JARD.).**

Gure premiak asetzeko ondasun-zerbitzuak kontsumitzeak ere berez beste kanpo-ondorio batzuk sortzen ditu, natura askotan ez baita gauza izaten horiek berriz barrentzeko, behin zabor bihurtuta epe luzean desegin gabe gelditzen baitira. Hori ere hatz ekologiko bihurtzen da, benetako kostua baloratu eta produktu horien benetako prezioa kalkulatzeko kontuan hartu beharrekoak.

***Konkurrentzia falta*** ere merkatuaren hutsegite larritzat hartu ohi da. Monopolioak dauden edo enpresak elkar adituta prezioak edo produkzio mailak ezartzen dituztenean, enpresak dira onuradun bakarrak eta ez oinezko herritarra. **(3.2 JARD.)**. jardunbide horren adibide bat oso gaurkoa, da estatu desberdinek eta enpresa farmazeutikoek C Hepatitisaren kontrako sendagaietan egiten duten manipulazioa. **(3.3 JARD.)**.

1. LOMCEan, merkatuko hutsegiteak azken eduki multzoan ageri dira. Guk egokiago jotzen dugu maerkatua esleitzeko mekanismoa aurkeztu ondoren aurkeztea, haren on-gaitzak eztabaidatzean, gai guztian amaieraraino itxaron beharrean.

Enpresen Erantzunbehar Sozialaren behatokia delako organoak honako eginkizunak ditu, enpresen aldetik jarrera erantzuleagoa bermatuko luketenak:

- Populazioa EESak duen ondorio positiboaz ohar dadin lortzea, eta enpresen benetako joerak eta ekintzak zein diren ulertaraztea.
- EES gaietan hartzen diren ekimen politikoei jarraipena egitea, eta bai Administrazio Publikoaren maila guztietan praktikan nola aplikatzen den ere.

Adostasun bat badago EESak hartzen dituen eremu handien gainean: eremu ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Hala ere, EESaren ezaugarria da pluridimentsionala izatea, enpresen kudeaketaren hainbat arlori eragiten diona:

- Giza eskubideak
- Lan eta enplegu praktikak
- Osasunaren babesa
- Ingurumeneko gaiak
- Iruzur eta ustelkeriaren kontrako borroka
- Kontsumitzaileen interesak

Enpresa batek ***Erantzunbehar sozialaren ziurtagiria*** eskuratzen duenean, horrek bermatu egiten du enpresa horrek efizientzia eta efikaziako irizpideak ez ezik zuzentasun eta erantzunbeharrarenak ere hartzen dituela aintzat. Hala ere, zenbait egilek titulu hori ere zalantzan jartzen dute. Enpresa arteko moda bat izan daiteke edo, are okerrago, beste errealitate bat mozorrotzeko balio duen itxura hutsa. **(3.4 JARD.)**

Enpresaren onura ahalik eta handiena izateko bidetzat produktibitatea eta efizientzia ezeren aurretik jartzeak bazter uzten du edo talka egiten du gizarteko zuzentasunaren printzipioarekin. Horra merkatuaren beste hutsegite handi bat baliabide eta ondasun-zerbitzuak esleitzerakoan. Gaur Espainiak bizi duen krisi ekonomikoak zuzentasun edo gizarte justiziaren inguruko arazo handi bat sortzea izan du ondorio, pobrezia edo gizarte-esklusio arriskuan dauden haur asko sortu baitira. **(3.5 JARD.)**

## *Jarduerak*

| **3.1 JARDUERA** | **Gauzen Historia** |
|---|---|
| Deskripzioa | Jarduera produktibo intentsiboaren ondorioei kritika bat egitea. Hasi erauzte-lanetatik, harik eta saldu eta erabiltzen diren arte, gure bizitzetan diren “gauza” guztiek (ondasun-zerbitzu guztiek) arazo sozial eta ingurumenekoak sortzen dituzte; hori dei bat baita denok elkar hartu eta mundu jasangarriago eta zuzenago bat sortu dezagun. |
| Gaiak | Justizia, jasangarritasuna, baliabide mugatuak, kanpo ondorioak, kontsumoa, hatz ekologikoa, obsoleszentzia programatua. |
| Helburuak | • Elkartasun ekonomiaren inguruko oinarrizko kontzeptu ekonomikoak ikastea. |
| Denbora premia | Gutxienez bi ordu irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak:** Justizia, jasangarritasuna, baliabide mugatuak, kanpo ondorioak, kontsumoa, hatz ekologikoa, obsoleszentzia programatua.<br>**Prozedurak**: Ulertaraztea, produkzio eta kontsumo ereduen alderdi iluna, hartarako bideo entretenigarri, dinamiko eta datuz kargatu bat erabiliz.<br>**Jarrerak**: Ekonomia beste faktore fisiko eta kultural askorekin (osasuntsuak nahiz toxikoak) lotzea ekintza ekonomiko gehientsuenek beste bizitza eremu batzuetan eragina izaten dute. |
| Materiala | Webgunea ikusi edo esteka deskargatu:<br>La Historia de las Cosas bideoa.<br>Paper biribilkia horma-irudia egiteko. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Laburbildu nola iristen den oreka mikroekonomiko eta makroekonomikora eta efizientzia eta produktibitate kontzeptuak errepasatzea.<br>• La Historia de las Cosas bideoa ikusi<br>• Bideo honetan hainbat kontzeptu hartzen dira ahoan, hala nola hatz ekologikoa eta obsoleszentzia programatua, pixka batean gelditzen gara horiek ikasteko.<br>• Galdeketa honi talde txikitan erantzun.<br>• Talde handian komunean jarri.<br>• Talde guztien artean horma-irudi handi bat egin, gehien harritu zaituen bideo zatia nabarmenduz. |

***ZER DAKIZU LEHENDIK:***

Modu zabalean edukiak errepasatu, ez oso sakon, baina kontzeptuak modu egokian erabiliz:

| | | | |
|---|---|---|---|
| EKONOMIA | PRODUKZIO FAKTOREA | PREMIAK | OREKA |
| ESKAINTZA ETA ESKARIA | KANPO ONDORIOAK | KONTSUMOA | PRODUKZIOA |
| JASANGARRITASUNA | OBSOLESZENTZIA | ONDASUN MOTAK | BALIAGARRITASUNA |

## INFORMAZIO PIXKA BAT:

- Comprar, tirar, comprar, dokumentala ikusi, non frogatu egiten den nola enpresa batzuek nahiaren gainean produktu baten bizitza laburtzen duten, gehiago kontsumitu dadin, hots: **Obsoleszentzia programatua**, eta hortik ingurumenerako heldu diren ondorio kaltegarriak agerian jartzen diren.

**BERRIZ ERE ZUK:**



Aurre-esan zein izanen den modaren etorkizuna jantzieta eta oinetakoetan: ..................

Aurrena, pentsa ezazu zein den aurten jantzi, zapata eta osagarri kontuan segitzen duzun moda. Hurrena, pipitaki-papataki, zein izanen ote da hemendik urte bat edo bira izanen den joera? Jenio bat zara!!!!!!!

**ETA BERRIZ ERE ZUK:**

- Ikus La Historia de las Cosas bideoa eta ondoren datorren galdeketa erantzun. Honako helbide honetatik atera dugu: http://es.slideshare.net/historia23/cuestionario-la-historia-de-las-cosas-gh23

Hobe litzateke galderen gainean hiru-lau pertsonako talde txikietan erantzutea eta ondoren komunean jartzea irakasleari egokien, ardurakoen eta bateragarrien iruditzen zaizkion galderak.

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

Gaurkoz aski pentsatu duzu, ATSEDEN hartu Celtas Cortos-en "Tranquilo, majete en tu sillón" entzuten duzun bitartean.






**Izena:** ..........................................................................................

## Batx. 1. kurtsoko ekonomia

**Justifika itzatzu zure erantzun guztiak**

**1.** Inoiz egon al zara zeure buruan galdezka nondil ote datozen erosten ditugub gauzak eta zer fin egiten ote duten?

**2.** Deskriba ezazu labur labur prozesu hau:



**3.** Anniek dio: Ezin da, planeta mugatu batean, sistema lineal bat mugagabe irauanarazi”. Bestela esanda: ezin da mugagabeko hazkunde ekonomiko bat izan baliabide mugatu batzuekin. Zer esan nahi ote du horrek zure herriko etorkizunerako? Zer aldaketa egin behar dira segur izateko gure sistema ekonomikoak gure planetako sistema biologikoa, sunstitu beharrean autsi egin dezan?

4. Sistema hau krisian da. Zergatik?

**5.** Zein eragile ekonomiko da jardunbide horren errudun nagusia? Zergatik?

**6.** Nola izan dezakegu eragina arabakiak hartzen dituztenen gainean?

**7.** Posible al da sistema horretatik ateratzea? Nola?

**8.** Anniek dio ezen materialen historia tradizionalean faltan ageri den gauzetako bat pertsonak direla. Zein pertsonak duten eraginik handiena sistemaren jardunbidearen gainean? Zeini hartzen egiten die kalterik handiena baliabide naturalak galtzeak eta kutsadura sortzeak? Zein pertsona ari dira lanean sistema hoOrren zati desberdinetan? Zu non zaude sistema horretan? Zer aukera dituzu, eserita zauden tokitik sistema aldatu eta jasangarritasuna eta justizia bultzatzeko?

**9.** Zer ez da kontuan hartzen? Nor ez da kontuan hartzen?

**10.** Zertan oinarritzen da “garapen jasangarria”?

**11.** Zer sistema ekonomikok bide ematen du jardunbide honetarako? Zergatik?

**12.** Onoko irudia deskribatu eta zeure iritzia eman.




**13.** Gobernuek zer lan egin behar lukete? Zertan aritzen dira deskribatu den sisteman?

**14.** Zenbat baliabide natural kontsumitu dira azken hiru hamarkadetan?

**15.** Zure ustez, kontsumo martxa horrekin segitzerik bada? Zergatik?

**16.** Anniek dio „Hirugarren mundua", zenbaiten ustez, „Besteren lurretan gelditu ziren estatu batuen zer batzuk" aipatzeko esapidea dela. Hala ere, estatu Batuak ez dira hirugarren Munduko herrietatik baliabideak hartzen dituen herrialde bakarra. Zer faktorek izan ote zuten parte objektu hori egiteko baliabideak ateratzean eta zein pauso emanz iren objektu hori zuregana iristeko?

**17.** Zenbat planeta behar genituxzke denok estatu batuetan bezala kontsumituko bagenu?

**18.** Zer gertatzen da arrain-samaldekin? Eta Amazonas eta bertako biztanleekin?

**19.** Zenbat kimiko erabiltzen dituela aitortzen du industriak?

**20.** Zer dira eragin sinergikoak?

**21.** Zer dira BFRak?

**22.** Zer esan nahi du neurotoxiko hitzak?

**23.** Nor dago prest neutotoxikoekin lan egiteko?

**24.** Zer egiten dute enpresek zaborrekin? Baliozko soluzioa da hori? Zergatik?

**25.** Ongi pagatzen diete beren langileei?

**26.** Anniekdio Estatu Batuetako biztanleek gaur feudalismoaren garaian baino asti gutxiago izatend utela. Hala ere, hainbat alderditan, espero9 liteke hobeki egotea gaur, ez okerrago. Zure ustez, zure herrian ere Estatu Batuetan bezalako joera dago? Baiezkoan, Zergatik dugu asti gutxiago? Nola alda dezakegu gure ekonomia gutxiago lan egin eta gehiago bizitzeko? Nola azkartu dezakegu aldaketa hori?

**27.** Zer esan nahi du kostuak kanporatzeak?

**29.** Zer da Obsoleszentzia programatua? Eta agerikoa?

**30.** Ondoko irudiarekin identifikatuta sentitzen zara? Zergatik?



**31.** Gehiago Kontsumitzeak zorion gehiago dakar?

**32.** Anniek dio estatu batuetan asti denbora gehiena telebista ikustek eta erosketan pasatzen duela jendeak. Zenbat ordua astean ematen dituzu telebista ikusten? Zenbat ordu erosketara joaten? (egia esan!) eta Interneten adiktoentzat, sar dezagun beste jarduera antoszial bat: zenbat ordu pasatzen dituzu Interneten, adiskideekin, familiarekin, gauza kreatiboak egiten, haize zabalean paseatzen edo liburu bat irakurtzen egon beharrean?

Zuen asti denboran izaten dituzuen jarduerak gogora ekarrik eta haietako zeinek ematen dizuete pozik handiena eta ongizaterik handiena? Zure asti denborako programak zure lehentasunekin bat egiten du?

**33.** Zenbat zabor produzitzen da kontsumorik handiena duten herrialdeetan?

**34.** Birziklatzea aski al da zaborrarekin ez arazorik izateko?

**35.** Zenbat balde zabor sortzen dira gure etxeetan botatzen dugun bakoitzeko?



**36.** Zergatik da kaltegarria erraustea?

37. Zer dira dioxinak?

38. Zer jarduera egiten dira gehien asti denbora herri kontsumoitzaileetan?

39. Kontsumitzaile arduratsua zarela uste duzu? Zergatik?

40. Badakizu zer diren hiru erreak? Maiz egiten al dituzu? Aipatu benetako kasuak.

41. Anniek dio Bigarren Mundu gerra izan eta gutxira, Dwight Eisenhower presidentearen aholkulari taldeko buruak esan zuela „Estatu Batuetako ekonomiaren azken helburua kontsumo ondasun gehiago produzitzea zela". Gure garaiotan eta zeure herrialdea gogoasn, Zein dira zure ustez gobernuaren eta ekonomiaren lehentasunak? Zein izan behar luke, zure ustez, zure herrialdeko ekonomiaren helburu nagusia? Nola lagundu dezakegu bakoitzak errealitate hori aldatzen, gobernuak jasangarritasuna eta justizia hartu ditzan ardatz, eta kontsumo ondasunak baino askoz baliotsuagoko gauzak?

42. Begiratu ondoko irudi hau. Zer irudikatzen du? Identifikaturik sentitzen al zara? Gogoeta egin.



43. Zer iruditzen zaizu bideo honetan azaltzen denaz? Erantzun luzea egin.

## 3.2 JARDUERA Elikagai subiranotasuna

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Munduko elikaduraren banaketa pertsona gutxiren eskuetan biltzen ari da. Gutxi horiek espekulatuz ezartzen dute elikaduraren prezioa finantza merkatuetan. Egoera honen ondorioz, energia kontsumoa handitzen ari da eta abusuzko prezioak jartzen zaizkie gauzei produkzio kostuen alderako. Nekazariek ez dute alternatibarik eta gastuak berdindu gabe produktuak saldu beharrean daude eta, horrela, pobreziaren lerroetara pasatzen dira. Arazo honen bidez salatzen ditugu munduko elikadura banaketaren oligopolioetan dagoen konkurrentzia faltaren gaitzak. |
| Gaiak | Merkatu motak, merkatu hutsegiteak, oligopolioa, elikadura subiranotasuna, merkataritza zuzena. |
| Helburuak | • Gogoratu zer merkatu motatan aritzen diren enpresak.<br>• Antz eman nork duen prezioak ezartzeko boterea konkurrentziako merkatuetan.<br>• Ikusi zeinen beharrezkoa den gure hurbileneko inguruan lehen premiako elikagaien hornidura kontrolatzea. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete iraurtekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Merkatu motak, merkatu hutsegiteak, oligopolioa, elikagai subiranotasuna, merkataritza zuzena.<br>**Prozedurak**: Elikagai subiranotasunaren bidez eta “merkataritza zuzenean” ari diren Kooperatiben bidez zer alternatiba dauden aztertu.<br>**Jarrerak**: Multinazionalek elikagaiak nola inposatzen dituzten kritikatu. |
| Materiala | REAS bideoa “elikagai subiranotasuna”ren gainean.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Soberanía alimentaria y comercio justo-ren gaineko REAS bideoaren esteka. |
| Garapena | • Merkatu hutsegite nagusiak errepasatu.<br>• Oligopolio baten eta haren ondorioen deskripzioa. Aipatu oligopolio horiek zer estrategia eta zer ondorio dituzten enpresa oligopolistikoentzat eta kontsumitzaileentzat.<br>• Ikus Soberanía alimentaria y comercio justo. Bideoa.<br>• Bideoaren gaineko galdeketa erantzun.<br>• Arazo honek zure herrian duen egoeraz Informatu. |

**ZER DAKIZU LEHENDIK:**

1. Gogoratzen al duzu oreka mikroekonomikoa zer den?
2. Zer hutsegite izaten ditu oreka mikro edo makroekomikoak?
3. Zer da oligopolioa? Zer ezaugarri ditu?
4. Zer estrategia izan ditzakete enpresa oligopolistikoek?
5. Zer ondorio izaten dituzte estrategia horiek oligopolioa osatzen duten enpresentzat? Eta kontsumitzaileentzat?

**INFORMAZIO PIXKA BAT:**

portal de economía solidaria

**«Jaten duguna gara»**. Baieztapen ausarta da baina, bere ausartean ere, egia. Elikagaiak eskuratu eta kontsumitzeko moduak dira agian zibilizazio bakoitza gehien eta hobekien definitzen dituzten ezaugarriak.

Baina zer pentsatuko ote genuke baldin gizarte batek, kilo bat haragi eskuratzeko, beste hainbeste erregai fosil erabiltzen badu? Edo letxuga triste bat kontsumitzailearen mahaian jartzeko batzuetan ehunka eta bai milaka kilometrotan ere garraiatu behar badu? Edo janaririk oinarrizkoenak produzitu eta kontserbatzeko ikaragarrizko produktu kimiko kopurua erabiltzen badu (ongarriak, pestizidak, kontserbagarriak...) denak ere osasunerako eta ingurumenerako aski susmagarriak? Dudarik gabe halako gizarte batek, antza, ez lioke efizientzia energetikoari batere garrantzirik emanen ez eta elikagaitako erabiltzen dituen produktuen kalitateari ere. Gizarte horrek, azken finean, bere elikaduraren baldintzen gaineko benetako erabakimena erabat galdu izanen luke.

Arazo horiei aurre egiteko, ekologikoak nahiz sozialak izan, truke paradigma berriak aurkitu beharrean gara, printzipio etikoetan oinarrituak ekonomikoetan baino gehiago. Merkataritza zuzena gaurko nazioarteko komertzioaren ereduaren kontrako erreakzio gisa sortzen da. Merkataritza zuzenak apustu egiten du baliabide eta errentaren banaketa berdinago baten alde, trukearen onura gehienbat produzitzaileen eskuetan uzteko moduan.

Merkataritza zuzeneko erakundeak, kontsumitzaileek bultzatuta, kementsu inplikatzen dira produzitzaileak sustatu, sentikortu eta kanpainak antolatzen nazioarteko merkataritza konbentzionalaren arau eta jardunbideetan aldaketak izan daitezen.

REAS - Red de Redes de Economía Alternativa y Solidaria

### ORAIN ZUK:

1. Zer da zuretzat subiranotasun hitza?
2. Zer da zuretzat justizia hitza?

Arretaz ikusi eta entzun bideo hau: :



Soberanía alimentaria y comercio justo.

### ORAIN GALDEKETA HONI ERANTZUN:

1. Nola definitzen da bideoan elikagai subiranotasunaren kontzeptua?
2. Nola deskribatzen dute elikagaien merkatuak duen problema oinarrizkoa?
3. Zer da merkataritza zuzena?
4. Hautatu eta defendatu zure aukera:
    - Elikagai subiranotasuna eta merkataritza zuzenaren ideia honek merkataritza lokala /itsas-gaindikoa bultzatzen du.
    - Produzitzaile-kontsumitzaileen arteko harremanak batez ere ekonomikoa/gizabidekoa izan behar du.
5. Barazki saskiak merkaturatzen dituen kooperatibak honako galdera hauen erantzuna hartzen du aintzat, zuk ere erantzun:
    - Zer produzitzen da?
    - Nola produzitzen da?
    - Nor kontsumitzen da?
6. Zein dira haren negozio ereduaren ezaugarriak?
7. Zer esan nahi du “subiranoa izateak”?

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

Iker ezazu ea zure herrian ba ote den nekazaritza elikagaiak modu horretan produzitu eta merkaturatzen duen enpresarik.

Gogoeta egin zer on-gaitz izan ditzakeen zuretzat negozio eredu honek orain eta gero batean.



## 3.3 JARDUERA C Hepatitisa

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Konkurrentzia mailaren arabera, zenbait merkatu mota bereiz ditzakegu: Monopolioetan eskaintzaile bakarra egoten da. Huraxe da kontsumitzaileendako merkatu motarik okerrena, zeren batere konkurrentziarik ez delarik, enpresak nahi bezala finkatzen ahal baitu produktuaren prezioa. Monopolio bat egoteko arrazoietako bat da ondasun hori berek soilik produzitzeko eskubidea ematen dien patente bat erregistraturik egotea. |
| Gaiak | Merkatu motak, konkurrentzia, monopolioa, patenteak, merkatu hutsegiteak. |
| Helburuak | • Gogoratu zein merkatu motatan ari izan daitezkeen gaurko enpresak eta zer ezaugarri dituzten.<br>• Ikasi zer on-gaitz dituzten konkurrentzia inperfektuan ari diren enpresek.<br>• Baloratu Estatuak zer paper duen merkatu hutsegite hau erregulatzeko. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Merkatu motak, konkurrentzia, monopolioa, patenteak, merkatu hutsegiteak.<br>**Prozedurak**: Adibide baten bidez aztertu monopolio bat egoteak produktuen prezioan eta kontsumitzailearen soberakinean zer ondorio dituen.<br>**Jarrerak**: Baloratu zer ahulune eta sendogune izan ditzaketen konkurrentzia inperfektuko merkatuetan ari diren enpresek. |
| Materiala | http://www.eldiario.es/sociedad/Medicos-Mundo-monopolio-Sovaldi-Europa_0_355215231.html |
| Agiriak | Galdeketa |
| Garapena | • Merkatu moten eta haien ezaugarrien gaineko teoria gogoratu, errepasoko galdeketa baten bidez.<br>• Ikasi zer egoeratan dauden C Hepatitisa duten eri asko, eta zer arazo dauden eritasun horri aurre egiteko sendagaiekin.<br>• Gogoeta egin zer on-gaitz dituzten patenteek eta zer ondorio izan ditzaketen. |

**ZER DAKIZU LEHENDIK:**

1. Zer merkatu mota ezagutzen dituzu konkurrentziaren arabera?

2. Zer ezaugarri ditu bakoitzak? Osatu koadro hau:

| | MERKATU MOTAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Konkurrentzia perfektua | Konkurrentzia monopolistikoa | Oligopolioa | Monopolioa |
| Enpresa kopurua | | | | |
| Produktuaren diferentziazioa | | | | |
| Sarrera oztopoak | | | | |
| Prezioen gaineko eragina | | | | |

3. Zer gertatzen da prezioak finkatzearekin konkurrentzia inperfektuaren kasuan (konkurrentzia monopolistikoa, oligopolioa eta monopolioa)?

4. Zer oztopo motak justifika dezakete monopolioak eta oligopolioak egotea?

5. Zer da patente bat? Zertarako balio du?

6. Zer on-gaitz ditu patente farmazeutiko bat erregistratzeak?

**ORAIN ZUK**

Ikas ezazu zer gertatzen ari den C Hepatitisa Sovaldi sendagaiarekin tratatzeko kasuan.

1. Zer da C Hepatitisa? http://www.elmundo.es/elmundosalud/especiales/2003/12/hepatitis/p01.html

2. Zein da gaur arazoa Espainian? http://www.eldiario.es/sociedad/Medicos-Mundo-monopolio-Sovaldi-Europa_0_355215231.html

3. http://www.eldiario.es/sociedad/Medicos-Mundo-monopolio-Sovaldi-Europa_0_355215231.html artikulutik honako informazioa atera dugu:

Sendagaiaren patentea Pharmasset farmazeutikak eskatu zuen, nahiz gero Gilead farmazeutikak erosi zuen, hartarako ia 11.000 milioi euro pagatuta. Patentea osagai solteen gainean eskatu zen eta orain osagai horietakoren bat daukan produktu baten gainean aplikatzen ari dira esklusibitatea.

Indian gertatu zen bezala, argudioa da Gileadek ez duela aurkikuntza berririk egin. Ez da asmaziorik izan. Hori izan zen gakoa Asian laboratorio horri patentea ukatzeko eta oraingoz atea zabalik gelditu da bertako laboratorioek Sofosbuvir (generikoa) prezio merkeagoetan produzitu dezaten.

Gileadek "patenteaz abusatzen du izugarri prezio altuak jartzeko", dio Munduko Medikuak erakundeak. Sendagai horren prezioak eragozten du eriek beren gaitza ia seguru senda lezakeen tratamendu bat izatea.

Sovaldi egiten duen laboratorioak iaz hiru aldiz handitu zituen bere irabaziak C Hepatitisaren kontrako sendagaiei esker.




*2015ean autonomi erkidegoek noizbait beren gain hartu dute Espainian ororendako tratamendua. Ogasun Ministerioak aurtengo defizitaren desbideratzea sendagai garesti hori pagatu beharragatik justifikatzen du.*

## **GOGOETARAKO JARDUERAK .** Zer egin dezaket nik?

Zer egingo zenuke zuk Ogasuneko ministroa bazina C Hepatitisa bezalako eritasun baten aurrean? Ez erantzun errazik pentsatu, oinarri ekonomikoa duten arazoak ez baitira errazak.

Ebazpide argudiatua pentsatu, azalbidea ordenatu eta zeure jarrera defendatu.



## 3.4 JARDUERA Enpresaren Erantzunbehar Soziala

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Enpresaren Erantzunbehar Soziala (EES) ekimen ona litzateke enpresek berek sortu dituzten gizarte kostuak neurtu eta bere gain hartzeko. Gaur egun hori asmo on hutsean gelditzen da, hura diseinatu zenean zegoen helburua betetzen ez dela. |
| Gaiak | Enpresaren Erantzunbehar Soziala, gizarte kostuak. |
| Helburuak | • Enpresek beren produkzio jardueran sortzen dituzten kostu pribatuen eta kostu publikoen artean bereizi.<br>• Hirugarrenek jasaten dituzten gizarte kostuei eta haien araubideari antz eman.<br>• Bere neurrian baloratu enpresaren erantzunbehar sozial famatua, neurri hori kanpo ondorio negatiboak benetan ebazteko baliagarria izan dadin exijituz. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: EES, gizarte kostuak, kostu pribatuak.<br>**Prozedurak**: Prentsa aztertu, informazioa zeure ingurunean bilatu.<br>**Jarrerak**: Baloratu zer eginkizun duen Enpresaren Erantzunbehar Sozialak gizarte kostuak sortzen dituzten jarduerak arautzeko eta benetan eta egitez bete dadin exijitu. |
| Materiala | Prentsa artikulua, webgunea ikusi, idazteko materiala. |
| Agiriak | Prentsa artikulua.<br>Cepes webgunea.<br>Galdeketa. |
| Garapena | • Enpresaren Erantzunbehar Sozialaren kontzeptua errepasatu .<br>• EES ziurtagiriak gaur duen egoeraren diagnostikoari buruzko artikulua irakurri.<br>• Galdeketa. |

**INFORMAZIO PIXKA BAT:**

*(Nafarroako Batxilergoko 2.eko gai-zerrenda komunetik aterea)*

**Enpresaren Erantzunbehar Soziala** kontzeptuak esan nahi du enpresa batek bere erabakiek eta jarduerek sortzen dituzten eragin ekonomikoak ez ezik, gizarte eraginak era kontuan hartu behar dituela.

Azken garaietan **geroz eta handiagoa da gizarteak enpresei egiten dien presioa gizarte eta ingurumen gaiei arreta handiagoa eman** eta beren jokabideetan jarrera etikoagoak har ditzaten.

Merkatu-ekonomiaren sistema kontzeptuak enpresario partikularrari bultza egiten dio bere produkzio kostu pribatuak ahal den guztian gutxitzeko, lehiakorra izanen bada. Horrek, kasu batzuetan, zera dakar: Gizarteari pasatzen zaiola produkzio kostu horien zati bat, gizarte kostuak deitu zatia hain zuzen, berek bere gain hartu beharrean.

**Gizarte kostuak enpresaren jardueren ondorioz hirugarrenek jasaten dituzten galerak dira.**

Gizarte kostu nagusien artean hauek aipa daitezke:

- Airearen eta uraren kutsadura.
- Oreka ekologikoaren aldaketa.
- Baliabide ezin berrituak agortzea.
- Laneko eritasunak.
- Langabezia.

Herri garatuenetan kasuko gobernuak lege berriak egiten hasi dira **gizarte kostu horiek eginahalean berdintzeko**, baina eskuarki lege horiek ezin dituzte alderdi guztiak berdindu eta nolabaiteko atzerapen batekin egiten dira, ebatzi nahi dituzten arazoen alderako.

Horregatik gizarte mugimenduek askotan exijitzen diete enpresei berek egien diezaieten aurre sortu dituzten gizarte eta ingurumen arazoei, nahiz eta horrek epe laburrera etekina ateratzeko gaitasuna murrizten dien.

Enpresa askok hartu dituzte beren gain erantzunbehar sozialaren printzipioak beren enpresa filosofiaren alderdi oinarrizko gisa, batez ere beren enpresa irudia lantzeko.

Hala ere, ekintza konkretuetara pasatzerakoan enpresek askoz murritzago egiten diete aurre gai hauei, gehienbat kostu kontuak direla medio, kontuan hartu gabe epe luzera enpresak berak irautea horren mende egon daitekeela.

## ORAIN ZUK:

1. Kontzeptua ulertu duzula egiaztatzeko, azaldu iezaiozu zure lagunari.

   Orain, irakur ezazu “El País” egunkariko artikulu hau, zeinean EESaren gaurko egoeraren diagnostiko bat egiten den (6/2/2015):
   [http://economia.elpais.com/economia/2015/02/06/actualidad/1423238793_856395.html](http://economia.elpais.com/economia/2015/02/06/actualidad/1423238793_856395.html)

2. Kontzeptuak enpresa txiki eta ertainetarako ere balio du?

3. Zer esan nahi du artikuluak “buenismo corporativo” hitzekin?

4. Zer esan nahi du “comply or explain” printzipioak?

5. Zer irudikatu nahi izan du diseinatzaile grafikoak EESaren inguruko irudi honen bidez? →



Sartu webgune honetan: [http://observatoriorsc.org/](http://observatoriorsc.org/) (EESaren behatokia)

6. Zer helburu du erakunde honek?

7. Behatokiak bere buruarendako zenbait estandar proposatzen ditu, enpresa bat sozialki erantzule bezala aurkeztu ahal izateko beharrezkoak. Zein dira horiek? Aipa itzazu.

8. Zenbatgarren tokia du Espainiak enpresa sozialki erantzuleen hurrenkeran?

**GOGOETARAKO JARDUERAK .** Zer egin dezaket nik?



Zure ustez, ondoko esaldi honek ba al du zentzurik? Arrazoitu ikuspuntu ekonomiko batetik.

*“Enpresek ez dute erantzule gisa jokatuko gizarteak erantzun-beharra eskatzen ez dien artean.”*

## 3.5 JARDUERA Haurren pobrezia

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | “Haurren Pobrezia eta gizarte esklusioa Europan. Eskubide gai bat” txostena, Save the children GKEak egina, irakurri ondoren, Merkatu-ekonomiak baliabideak esleitzean izaten dituen hutsegiteetako batekin topatzen gara: Gizarteko zuzentasun- edo justizia eza. Errealitatea are ikusgarriagoa da haurrengan, gure etorkizuna baitira. |
| Gaiak | Merkatu hutsegiteak, haurren pobrezia, desberdintasuna, zuzentasuna. |
| Helburuak | • Geure inguruan nagusi den sistema ekonomikoaren merkatu hutsegiteak gogoratu.<br>• Aukera berdintasuna haurretatik izatea edozein nazio garatutan eskubidea dela ulertzea. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Merkatu hutsegiteak, zuzentasuna, haurren pobrezia.<br>**Prozedurak**: Aztertu krisi ekonomikoak populazio desfaboratuan izan dituen ondorioak.<br>**Jarrerak**: Gure ingurune hurbileko pobrezia egoerez sentikortzea. |
| Materiala | Webgune hau ikus edo esteka deskargatu: www.savethechildren.es<br>“Haurren pobrezia eta gizarte esklusioa Europan. Eskubide gai bat” |
| Agiriak | Galdeketa |
| Garapena | • Oreka makroekonomikoa deskribatu.<br>• Oreka honek sortzen dituen merkatu hutsegiteen zerrenda egin.<br>• Jarduera merkatuaren hutsegite honetan zentratu: zuzentasun falta, zer den arrazoituz.<br>• Haurren pobreziak Europan duen egoera aztertu.<br>• Save the children GKEaren proposamenei kritika konstruktiboa egin. |

## ZER DAKIZU LEHENDIK:

1. Zer da oreka makroekonomikoa? Definitu eta grafikoki irudikatu.
2. Oreka horrek efizientzia kontzeptua hartzen du aintzat. Gogoratzen al duzu printzipio horrek zer esan nahi duen?
3. Oreka horrek ez du hutsik edo badu? Nola definituko zenuke merkatu hutsegitea terminoa?
4. Zer merkatu hutsegite ikasi dituzu? Adibide batez deskribatu itzazu.
5. Pobreziaz mintzatzen bagara, zer merkatu hutsegiterekin lotuko zenuke?
6. Zer da *aukera berdintasunaren printzipioa*? Zure ustez pertsona guztiek aukera berdintasuna dute?

## ORAIN ZUK:




Irakur ezazu Haurren pobrezia eta gizarte esklusioari buruzko txostena 2014, *Save the children* GKEak egina.

1. Txostenaren irakurketa talde txikitan banatu.
2. Power-point edo prezi aurkezpen bat egin zure zatiaren laburpena egiteko.
3. Azal ezazu klasearen aurrean, ikuspuntu sozialaz gain analista ekonomikoaren ikuspuntua ematen duten kontzeptu ekonomiko guztiekin osatuz.
4. Kritika konstruktiboa egin, GKEak iradokitzen dituen gomendioak burutara nola eman ideiak aurkeztuz eta bai arazo larri hau ebazteko modu berriak ere.

**GOGOETARAKO JARDUERAK**. Zer egin dezaket nik?

1. Ba al dakigu geure herriko haur askok zer errealitate bizi duten?
2. Nola ordenatu behar genituzke lehentasunak, zure ustez, baliabiderik gabeko edo baliabide gutxiko haurren kasuan?
3. Nola finantzatuko zenuke gastu horiek? Zergetatik (zeinetatik), iturri pribatuetatik?



**4. MULTZOA**

# Makroekonomia

- Makromagnitudeak: produkzioa. Errenta. Gastua. Inflazioa. Interes tasak.
- Lan merkatua. Langabezia: langabezia motak eta haren arrazoiak. Langabeziaren kontrako politikak.
- Arazo makroekonomikoen estekak eta haien arteko loturak.
- Aldagai makroekonomikoen limitazioak gizartearen garapenaren adierazgarri.

## *Arlo teorikoa*

Gure ekonomiak kezkatzen gaitu. Milioika langabe lan bila dabiltza, konstituzioak emandako eskubidea baita. Gaur egun, lana lortzen baduzu ere, horrek askotan ez du berekin langilearendako bizitza duina ekartzen, **soldata** oso eskasa delako. **(4.1 JARD.)**.

Makroekonomiak eskualde edo herrialde bateko populazio osoari batera eragiten dioten arazoei eman nahi die erantzuna. Ekonomistek ekonomiaren osasun egoera aztertzeko erabiltzen dituzten makromagnitude nagusietako bat BPG da.

BPG da herrialde batean denbora-aldi jakin batean produzitu diren azken buruko ondasun-zerbitzu guztien merkatu balioa. Herrialdeak urtetik urtera aurrera egin nahi badu, balio horrek ere aurrera egin behar du. Hazkunde ekonomikoa deritza horri.

BPG hori eragile ekonomikook eskatzen dugunaren ondorioz enpresek produzitzen dutenaren emaitza da. Familiek ondasun-zerbitzuak eskatzen dituzte beren premia lehen nahiz bigarren mailakoak asetzeko. Eskari horri kontsumo pribatua deritza. Enpresek, beren etekina ahalik eta handiena izateko, inbertitu behar dute, ekipo ondasunak erosi, gero batean irabaziak izateko asmoz. Instalazioen eta makinen eskari horri inbertsio deritza. Beste alde batetik, sektore publikoak gizarteko ongizatea ere ahalik eta handiena izan dadin nahi izaten du, gizartea hainbat zerbitzuz hornituz, hala nola hezkuntza, osasun arreta, segurtasuna eta abar. Hori lortzeko, gastu publikoa egin behar izaten da. Azkenik, eta globalizazioarekin gero eta gehiago, atzerriko herrialdeek gure produktuak eskatzen dituzte eta guk ere batzuetan haienak nahiago izaten ditugu.

Hortaz, BPG hori lau osagaitan bana daiteke:

$$\mathbf{BPG=C+I+G+(X-M)}$$

Ikuspuntu horretatik ikusita, argi dago magnitude horiek urtez urte gora egiten ez badute, herri bateko biztanleek ez dutela beren ongizatea hobetuko. Izan ere, kalkulatu da BPGaren urteko ***hazkunde tasak*** ehuneko bikoa izan behar duela lantoki kopuruari bere horretan eusteko. Hortaz, gehiago kontsumitu, gehiago inbertitu, gero eta gastu publiko gehiago egin eta geure produktuak atzerrian gehiago saldu behar ditugu. Noiz arte? mugarik gabe hazterik ba al da? Beste ekonomista batzuek, ez hain ortodoxoak, ez dute uste hori egin daitekeenik; gizakiok beti gehiago nahi izaten dugu baina natura mugatua da eta agian besterik gabe garaia da hazkunde geldiezin eta ezin jasanezko hori mantsotzen hasteko. **(4.2 JARD.) (4.3 JARD.)**.

Uste badugu herrialde baten ongizatea neurtzeko herritarrek eskuratzen dituzten errentak aintzat hartu behar direla, hau da: soldatak, mailegatutako kapitalen interesak, alokairuak eta enpresen etekinak, orduan ados egonen gara errenta/biztanleko delako indikadorea baliagarria izanen zaigula. Hortaz, zenbat eta handiagoa izan *per capitako* errenta, orduan eta aberatsagoa izanen da herri bat eta bizi kalitate handiagoa izanen du.

**ERR=Soldatak+alokairuak+Interesak+enpresen etekinak**

Baina dirua al da zorion iturri bakarra? Sakelan diru gehiago izatea beste zorionbiderik ez dugu?

Beste erantzun batzuk badira, dirua zorion iturri bakartzat osatzen dutenak. **(4.4 JARD.)**

Hazkundea, enplegua, prezio egonkorrak eta abar bezalako helburu ekonomikoak iristeko, gobernuek politika ekonomikoko tresna batzuk izaten dituzte, izan litezkeen desbideratzeak zuzentzeko erabil ditzaketenak.

a) Zerga Politika: zergen, gastu publikoaren eta transferentzien bidez herritarrak kalitateko ondasun-zerbitzuz horni daitezke, eta, horrez gain, bai errenta aberatsenetatik behartsuenetara birbanatu ere.

b) Diru politika: interes tasak ezarriz edo zirkulazioan den diru kopurua kontrolatuz, prezio maila eta kreditu eta maileguak eskuratzeko baldintzak kontrolatu daitezke.

c) Kanpo politika: kanpoko merkataritzarendako araudien eta pizgarrien bidez hazkundea sustatu daiteke. Moneta nazionalaren balio erlatiboarekin ere joka daiteke.

d) Errenta politika: prezioak eta soldatak erregulatuz, sektore desfaboratuekin elkarlana egin daiteke herri bateko ekonomian desfaboratuak baina estrategikoak diren sektoreekin.

Politika horietatik guztietatik Europako gobernuak zerga eta errenta politiketan baizik ez dira subiranoak eta, hor ere, ez kasu guztietan. Europako Batasunean

sartu zirenetik, herrialde kideen ekonomia ministerioek Batasunak proposatzen dituen neurriei men egin behar izaten diete. Horren alderdi zaila da neurri bat bera errealitate ekonomiko bana duten herrialdeentzat mesedegarria izatea.

Familien errenta pertsonal erabilgarriak bi erabilera izan ditzake: kontsumoa eta aurrezkia. Errenta nazionala oinarri hartuta ateratzen da:

**EPE = NE-(Ebg+Z+GS) +Tr.**

Zuzeneko zerga-ezartzea (Td), Gizarte Segurantzaren kotizazioak (Css) eta familiek langabezi-sariengatik edo pentsioengatik Estatutik jasotzen dituzten transferentziak (TE) dira Estatuak banaketa zuzentasuna faboratzeko egin ditzakeen esku-hartzeetako batzuk.

Hortaz, nahiz mugatuak izan, eskualde batean zer Zerga Politika ezartzen den, erabakigarria izan daiteke hango ongizatea hobetzeko. Esan daiteke bizi kalitatea hobetu dela jende gutxirena asko hobetuz nahiz, gutxiago bada ere, hobetuz. Lehen kasuan ***gizarte desberdintasunak*** handitzen dira, aberatsen eta laguntza publikoa behar dutenen artean osin zabala eginaz. **(4.5 JARD.)**

Arestian aipatu per capitako errentaren ideiak herri edo eskualde bateko batez besteko errentari antz emateko bidea ematen digu baina horrek ez du esan nahi denak egoera berean daudenik. Askotan herri bateko ekomonia hazten denean (BPG hazten da) ez da herritar guztien ongizatea. Gizarte justiziaren ideia zatikatu eta urratzen duten gizarte diferentzia handiak egon daitezke.

Bi oinarrizko tresna daude eskualde bateko pertsonen arteko desberdintasun maila ikertzeko: Lorenzen kurba eta Giniren indizea.

Lorenzen kurbak grafikoki erakusten du populazio batean nola banaturik dagoen errenta. Hartan, populazio portzentaiak (abszisak) populazio horrek jasotzen duen errenta portzentaiekin (ordenatuak) lotzen dira. Lorenzen kurban abszisen ardatzak, beraz, populazioa irudikatzen du, errenta txikieneko pertzentilak ezkerretara eta errenta handienekoak eskuinetara gelditzeko moduan ordenatua. Ordenatuen ardatzak, berriz, errentak irudikatzen ditu..



Giniren indizeak errentak herri bateko indibiduoen artean duen banaketa maila neurtzen du, berdintasun osoko banaketa batekin erkaturik. Giniren indizeak errentaren kontzentrazioa neurtzen du. Haren balioa zerotik batera bitarte egon daiteke. Zenbat eta hurbilago egon 1-etik, orduan eta handiagoa izanen da aberastasunaren kontzentrazioa; zenbat eta zerotik hurbilago, zuzenagoa izanen da herri horretako errentaren banaketa. 0 balioak erabateko berdintasuna irudikatzen du, eta 1 balioak erabateko desberdintasuna.

Berriki egindako ikerlanek erakutsi dute nola ***munduko aberastasuna gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen*** ari den. Dirua kontzentratzen da, jakina, baina boterea eta aukerak ere bai. Horrek nahitaez hala behar du? **(4.6 JARD.)**

## *Jarduera*

### 4.1 JARDUERA Soldata desberdintasuna

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Enpresaren Erantzunbehar Soziala, enpresa batek gizarteari alderdi sozial, ingurumenekoan eta ekonomikoan egiten dion ekarpen positiboa da. Enpresa batek sozialki erantzulea dela esateko, hainbat parametro aztertuko dira: integrazioa, gizarteko hezkuntza alderdiei egindako ekarpena, ingurumen faktoreak, eta, nola ez, lan faktoreak, hala nola kontziliazioa edo enpresa bat bereko langileen arteko soldata desberdintasuna. |
| Gaiak | Soldata desberdintasuna, lanbide arteko gutxieneko soldata, enpresen erantzunbehar soziala, batez besteko soldata, justizia soziala. |
| Helburuak | • Gogoratu lan merkatuaren oinarrizko kontzeptu batzuk.<br>• Ikasi zer egoera duten gure herriko soldatek.<br>• Ulertu soldata desberdintasunak gure sistemaren inefizientzia bat direla eta ez-zuzentasunen iturri direla. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Soldata desberdintasuna, lanbide arteko gutxieneko soldata, enpresen erantzunbehar soziala, batez besteko soldata, justizia soziala.<br>**Prozedurak**: Aztertu benetan zer egoera duen soldata jauziak Espainiako enpresa nagusietan.<br>**Jarrerak**: Soldata desberdintasunari muzin egin gizarte bateko berdintasuna bermatzeko bidetzat. |
| Materiala | diarioresponsable.com egunkari digitaletik, CCOOren “Indicadores de buen gobierno en las empresas del ibex35 durante 2014” artikulua transkribatzea. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • IBEX-35-eko enpresetan azken urteetan soldata jauziak izan duen bilakaeraren gaineko artikulu laburtua irakurri.<br>• Ikerlan horretako xehetasunak zabaltzeko, txosten laburtu gabera jo.<br>• Ikasleak bila ditzala Espainian soldatek gaur duten egoeraren gaineko datu oinarrizkoak.<br>• Datuen eta gogoetagaien gaineko galdeketari erantzun. |

**INFORMA ZAITEZ:**

Honako gogoeta gaien gaineko informazioa bilatu:

1. Zein da lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) Espainian?
2. Ikertu zein diren gure inguruko herrien gutxieneko soldatak.
3. Zein da langile baten batez besteko soldata azken urte honetan?

## GEHIXEAGO JAKITEKO:

DIARIO RESPONSABLE.COM egunkari digitaleko helbide honetan, 2014an CCOOk IBEX 35-eko enpresen bilakaeraren gainean egindako txostena:

http://diarioresponsable.com/noticias/22271-rse-aumenta-la-brecha-salarial-en-las-empresas-del-ibex-35-segun-ccoo

Txostenaren zati esanguratsuenak hauek dira. Txosten osoa ikusteko, hemen klik egin

http://www.ccoo.es/rseibex352014/rseibex352014.pdf



## EES.- Ibex 35-eko enpresetan soldata jauziak gora egiten du, dio CCOOk

CCOOk joan den asteartean txosten bat aurkeztu zuen Ibex-35-eko enpresek 2014an izandako bilakaeraren gainean, zeinean ondorio nagusia den desberdintasun handia dagoela etekin hobekuntzaren banaketan: IBEX-35eko enpresen % 37,8 2013 urtearen alderako.

Sindikatuko arduradunek diotenez, Espainiako enpresa nagusiek etekinetan izan duten hobekuntzak ikusgarri goratu ditu lehen agintarien, kontseilarien, zuzendarien eta akzionisten soldata eta irabaziak. Horrek kontraste gogorra egiten du gizarteari egiten dioten ekarpenarekin

–Ogasun Publikoari egindako zerga sarrerak – eta bere langileei ematen dieten tratamenduarekin– langileen soldatak, lantokien sorkuntza, askoz txikiagoak baitira.

Halatan, Ibex eko presidenteek batez beste beren langile batek baino 158 aldiz gehiagoko soldata dute, noiz eta aurreko urtean batez beste 87 aldiz gehiagokoa zen, hala ematen du agertzera "Informe sobre la evoluzioa de las **empresas del IBEX-35** durante 2014" delako dokumentuak. Han, azaldu egiten da nola lehen agintariek, kontseilariek, zuzendariek eta akzionisten soldata eta irabaziek izugarri gora egin duten (80%, 30%, 14,3% eta 72,4%, hurrenez hurren). "irabazpide eskuzabal horrek kontraste handia egiten du langileen batez besteko soldatarekin, 1,5% behera egin baitu, edo lantoki sorkuntzarekin, 2,5% gehiago baizik ez", azaltzen du Carlos Bravok, CCOOko Babes Sozialerako eta Politika Publikoetarako idazkariak.

**CCOOren txostenak**, gainera, azpimarratzen du erabakimena akzionista gutxiren eskuetan kontzentratzen ari dela – 8 finantza erakunde, eta nazioarteko inbertsiogile bakan batzuk dira IBEX-35eko enpresen akzionista pisudunak- emakume gutxi egoten direla administrazio batzordeetan edo lau auditoria enpresa handienek IBEXeko enpresak elkarren artean banaturik dituztela bere bezeroetan, batzuetan 20 urte baino gehiagoz, prentsaurre batean azaldu zutenez Carlos Bravok eta Pablo Rojasek, Idazkaritzako teknikariak eta ikerlanaren egileak.

Era berean, txostenak IBEX-35eko enpresen genero gaietako gobernamendu politikak aztertzen ditu; beren administrazio kontseilu eta zuzendaritza taldeen bilakaera; enpleguari egindako ekarpena eta bere plantillen bilakaera; zuzendari, kontseilari eta akzionistendako soldata politika desberdinak; langileen soldaten bilakaerarekin duen lotura; enpresa horien zerga ekarpena; edo kanpoko auditoreekin duten lotura maila, beste ikergai batzuen artean. ■

4. Zein da azken urte honetan langile baten maizeneko soldata (moda)?

5. Zein enpresa dira IBEX-35ekoak? Zer ezaugarri komun dituzte?

6. Zein dira IBEX-35eko presidenteen soldatak? Ohar zaitez zifra hori urtebeteari dagokiola. Zenbat diru irabazten dute hilean?

7. Nork osatzen du enpresa bateko gizataldea? Bete hurrengo taula hau bakoitzak dituen helburuekin:

| ENPRESAKO GIZATALDEAREN HELBURUAK | | |
|---|---|---|
| LANGILEAK | ZUZENDARIAK | JABEAK |
| | | |
| | | |
| | | |

8. Gatazka biderik ikusten duzu helburua horien artean?

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

1. Gutxieneko soldata bat badago, gehieneko soldata ere egon beharra dela uste duzu?
2. Uste duzu enpresaren etekinak kalte hartuko lukeela langileek enpresa jabearen soldataren zati bat banatuko balute?
3. Zure ustez, enpresa batek “enpresa sozialki erantzulea”ren etiketa eraman dezake langile eta jabeen arteko halako soldata jauzia dagoenean?



## 4.2 JARDUERA Kontsumismoa *versus* des-hazkundea

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Ekonomia hazi eta lantokiak sortu daitezen, ekonomiaren arau ofizialek ondasun-zerbitzuak kontsumitzera bidaltzen gaituzte. Ondasunak, jakina denez, baliabideekin produzitzen dira eta horiek mugatuak izaki. Errezeta hori bada, ikusten dugu gero batean, laster ala berandu, produkzio faktoreen eskasia izan dezakegula. |
| Gaiak | Hazkundea, BPG, enplegua, kontsumo konpultsiboa, des-hazkundea, baliabide mugatuak. |
| Helburuak | • Makroekonomiako kontzeptu gakoak gogoratu: BPG, PNB, hazkundea.<br>• Bereizi hazkundearen teoria eta haren kritika alternatiboa, des-hazkundea.<br>• Baloratu hazkunde ekonomiko mugagabeari muga jarri beharra defendatzen dutenen jarrera kritikoa. |
| Denbora premia | Gutxienez bi ordu irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Hazkundea, BPG, enplegua, kontsumoa, des-hazkundea.<br>**Prozedurak**: Merkatuko arauak ezagutzera eman, kontsumo konpultsiboaren ondorio psikologiko eta ekonomikoak.<br>**Jarrerak**: Ulertu ekonomia hautatzearen zientzia dela, baliabideak mugatuak direla jakinik eta beste alternatiba batzuk egon daitezkeela gure ongizatea eta geroko belaunaldiena ere mantentzeko. |
| Materiala | Webgunea ikusi edo estekatik deskargatu:<br>Desarrollo sostenible o decrecimiento sostenible<br>"Consumidos"<br>Ikasle baten des-hazkundearen gaineko aurkezpenaren laburpena |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • BPG, hazkundea, enpleguaren gaineko oinarrizko kontzeptuak errepasatu.<br>• Ikusi publizitateak eragindako kontsumo konpultsiboak sortutako problemen eta horiek osasunean, ekonomian eta gaitz hori sufritzen duten pertsonen arteko harremanetan dituen ondorioen gaineko dokumentala.<br>• Aztertu ea hazkundeak mugak dituen, baliabideak mugatuak direlarik, baina herri pobreek ere eskubidea dute beren ongizatea handitzeko. |

**ZER DAKIZU LEHENDIK:**

1. Zer da hazkunde ekonomikoa? Zer hazten da?
2. Zer da BPG?
3. Badakigu gastuaren aldetik BPGaren ekuazioa hau dela: **DA=BPG=C+I+G+(X-M).** Arrazoitu espresio hori.
4. Non sartzen zara zu aurreko identitate horretan? Zein terminotan?
5. Zeren mende dago herri batean gehiago ala gutxiago kontsumitzea?
6. Ekonomia hazten ez bada, ez omen da enplegurik sortzen. Beraz aterabide bakarra dago, antza: kontsumitzea. Errezeta horri zer arazo ikusten diozu?

**ORAIN ZUK**

Honako dokumental honetan, "Consumidos" (Documentos TV), azaltzen da nola erosketa konpultsiboek eritasun adiktibo berria sortu duten. Kontsumo bridagabea arazo bat izan daiteke garaiz gelditzen ez bada. "Kontsumo-adiktoa ez da asko erosten duenean pozik dagoena, baizik etxera joan eta erosi duena ikustean sufritzen duena".

Sartu orain REAS webgunean (red de redes de economía alternativa y solidaria) eta irakurri Desarrollo sostenible o decrecimiento sostenible laburpena, Buscant Llavors-eko artikulu batetik egina.

1. Badakigu hazteko ditugun baliabideak mugatuak direla, artikuluaren egileak hirugarren munduko edo garapen bideko herriei hazkundea ukatzen die?
2. Sachs doktoreak, hazkunde jasangarriaren ikerleak, espresio edo ekuazio bat formulatzen du garapen jasangarrirako bide emango lukeena. Handi-handi idatz ezazu zure orrian.
3. Zer eginkizun du aktore bakoitzak ekuazioaren aldagaietan?
4. Zergatik dio egileak ekuazioa espresioko lehen terminorantz desorekatua dagoela?
5. Nork edo Nortzuek esku hartu behar lukete ekuazio hori bete zedin? Nola?

Serge Latouche bezalako autore batzuk haratago joan eta ez dute garapen jasangarria aipatzen, baizik besterik gabe "des-hazkunde ekonomikoa". Aurreko estekan klik egin eta entzun nola azaltzen duen egileak bere teoria.

1. Bideoko edukiaren laburpena egin.

   Zuen adineko ikasle batek gaiaren gaineko informazioa bildu eta lan on bat egin du: aurkezpen batean bildu du "des-hazkunde ekonomikoa"ren filosofia. Hona hemen bere aurkezpenaren laburpena:

IKASLE BATEN "DES-HAZKUNDEA"REN GAINEKO AURKEZPENA


















## ORAIN, GOGOETA EGIN BITARTEAN, SORTU:

Egin ezazu aurkezpen bat (power-point, prezi, etc), oso xinplea, des-hazkundearen zutabe diren zortzi “R”ak bertan sartzeko. Sortzailea izan, erabili irudimena diseinu ederra sortzeko. Badakizu batzuetan hitz gutxi aski direla eta irudi boteretsu bat ez dela erraz ahazten. Erakusketan utzi litezke gelako paretetan edo ikastetxeko pasilloetan.

## **GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

1. Ongi ulertzen ditugu des-hazkundearen “R” guztiak? Ikertu.
2. Haietako bat edo bat erraztu genezake kontsumitzaile nerabe gisa?



## 4.3 JARDUERA *Downshifting* edo *slow* mugimendua

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Lana banatzea aukera bat da langabezi tasa ofizialak gutxitzeko. Baina gutxiago lan egin eta bizitzaz, familiaz eta adiskideez gehiago gozatzeko erabakia nork bere oldez hartzen badu, orduan “downshifting” horri esker aukera baitago lan, zor, kontsumo, lan espiraletik ihes egiteko... |
| Gaiak | Langabezia, slow mugimendua edo downshifting, kontziliazioa, kontsumoa. |
| Helburuak | • Ohartzea dugun bizimoduak gero eta estresatuago bizitzera garamatzala, beti “gehiago” behar izaten baitugu.<br>• Laneko bizitza, ekonomikoa eta soziala eramateko beste modu alternatibo batzuk ezagutu. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Langabezia, slow mugimendua edo downshifting kontziliazioa, kontsumoa.<br>**Prozedurak**: Azaltzea nola lan erritmoa gutxitzeko aukera ere badela, dugun lan munduak dakarren martxa bridagabeak sortutako stress egoera pertsonaletatik ihes egiteko.<br>**Jarrerak**: dugun bizimoduarekin kritikoak izan (beti lan gehiago egin behar gauza gehiago lortzeko). Zer gehiago lortuko dugu? Eta zer utziko dugu hori lortzeko? |
| Materiala | Webgunea ikusi edo estekak deskargatu:<br>http://www.pymesyautonomos.com/vocacion-de-empresa/downshifting-un-motivo-para-emprender<br>http://www.slowmovement.com/downshifting.php |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Gogoratu Lan merkatuaren jardunbideaz lehendik dakizkigunak.<br>• Gogoratu zer neurri dauden langabeziari borroka egiteko, eskaintza neurriak azpimarratuz, lana banatzekoetan hain zuzen. Aztertu zer on-gaitz dituen agintari publikoek halako neurriak inposatzeak.<br>• Downshifting delakoa lana banatzeko borondatezko aukera bat bezala aurkeztea, haren jatorriak ulertuz eta bera hartzen duten pertsonendako zer abantaila dituen ulertuz. Adibide jakin baten bideoa ikusi. |

**ZER DAKIZU LEHENDIK:**

1. Lan merkatua grafika batean irudikatu eta haren eragile nagusiei antz eman.
2. Munduko politikan indar duten bi ideologia nagusien arabera langabeziak dituen arrazoiak aztertu.
3. Zer ekintza lerro nagusiri segitzen diote bi korronte hauek langabeziaren problema konpontzeko?
4. Lana banatzea, gutxiago lan egin pertsona gehiagok lan egin dezaten, aukera bat da. Pentsa ezazu zer on-gaitz dituen proposamen honek nahitaezko moduan ezartzen bada.

**INFORMAZIO PIXKA BAT:**

Agian batzuek ezaguna izanen dute ***"downshifting"*** mugimendua, edo haren aditzera behintzat izanen dute. Gehienek, ordea, lehenbiziko aldiz adituko dute segur aski mugimendu horren berri. Laurogeigarren urteetan sortu zen denok "Yupi" izenarekin ezagutzen genituen exekutibo agresibo horien artean.

Exekutibo horien ezaugarria zen gauza guztien aurretik jartzen zutela beren lan karrera. Haietako batzuk beren karreraren gorenera iritsi zirenean hasi ziren konturatzen lan arrakastaren aldera beren bizitzako hainbat arlo zaindu gabe utzi zituztela, hala nola familia, adiskideak edo aisia. Orduan erabakitzen zuten **galdutako denbora berreskuratzea**, nahiz horretarako beren soldatak utzi behar izan.

Gaurkoa bezalako gizarte lehiakor eta kontsumista batean, txikitatik irakasten digute besteen artean nabarmendu eta gailentzeko desira. Hartarako sakrifizio espiritua izan behar dugula dioskute, hori iritsi ahal izateko.

Hartara, gogoeta gehiegi egin gabe, gauzak harrapatu-behar etengabea bihurtzen zaigu bizitza, konturatu gabe eze zenbat eta gauza gehiago izan, are gehiago behar izaten ditugula eta hartarako zorrak egin beharrean egoten garela, eta gainera, paradoxarik handiena, gero eta beta eta asti gutxiago izaten dugula metatzen ari garen gauza guztiez gozatzeko.

Enpresek oso kontuan hartu behar lukete kontsigna hau, zeren langileek modua dutenean beren lan bizitza beren bizitza pertsonalarekin bateratzeko, pozikago, motibatuago eta produktiboagoak izaten baitira.

**ORAIN ZUK:**



• Enpresa eredu baten bideo hau begiratu downshifting parametroen arabera. Ondoren galdera hauei erantzun:

https://www.youtube.com/watch?v=LFBrJxjiXyU&feature=player_embedded

1. Aipatu ostatu jabeek zer abantaila deskribatzen dituzten halako filosofia bat hartzeko, beste produkzio sektore batetik etorri ondoren.

2. Esaldi honen gainean gogoeta egin: “*bizitzeko lan egin eta ez lan egiteko bizi*”.



• Sartu webgune honetan http://www.slowmovement.com/. Sarrera hau beren “who we are?” esteka da eta mugimendua zer den azaltzen du eta bizitzako zein arlo eta alderditan egon daitekeen: Hezkuntza, elikadura, garraioa, eta abar. Denak ere eguneroko alderdiak, gizartean bizi eta pentsatzeko modu jasangarria inplikatzen dutenak.

1. Talde txikietan (ez lau pertsona baino gehiago) “slow mugimendua” egon daitekeen bizitza arloak banatu.

2. Eztabaidatu zure taldean tokatu zaizun “slow arloak” zer on-gaitz dituen.

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

Honela dio irakurri dugun testuak:

*“Stress is leading to unprecedented health problems. “Stop the world I want to get off” is a feeling we all have sometimes. “*

1. *Have you ever thought the same?* Inoiz gauza bera pentsatu al duzu?

2. Segur aski ez dut nahi, eta ezin dezaket, neure kontsumoa eta gastua bat-batean erabat gelditu... baina agian pixka bat moteldu nezake... nola moteldu edo apaldu nezake neure espirala?



## 4.4 JARDUERA Barne Zoriontasun Gordina (BZG)

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Barne Zoriontasun Gordinaren Indizea, Butan herritik etorria, erakusten duen bideoa oinarri, ikasleak per capitako PIN indizearen alternatiba batzuk ezagutu ditzake banakako eta taldekako ongizatea irudikatzeko. |
| Gaiak | Ongizate pertsonala eta soziala, aberastasuna, Premiak. |
| Helburuak | • Gogoratu zein diren eskualde bateko ongizatea ezagutzeko erabiltzen diren aldagai makroekonomiko nagusiak.<br>• Definitu ongizatea aberastasun materialaz gaineko aldagaien batuketa ponderatua bezala.<br>• Jakitea zer toki dugun guk ongizate neurri desberdinen arabera. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Ongizate pertsonala eta soziala, BPG, BZG.<br>**Prozedurak**: Ezagutzea, errenta metatzeaz gain, zer alternatiba dauden gizarte baten ongizatea neurtzeko<br>**Jarrerak**: beste ongizate eredu batzuen aurreko jakin-mina. |
| Materiala | Webgunea ikusi edo esteka deskargatu<br>Barne Zoriontasun Gordina |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • BZG zer den esplikatzen duen bideoa ikusi.<br>• Pentsatu zein indizek erakusten duten gizarte baten ongizatea eta deskribatu, antzak eta diferentziak azpimarratuz.<br>• Bilatu zein toki hartzen duen zure herriak edo eskualdeak (daturik baldin badago) indize alternatibo desberdinen arabera.<br>• BZG parametroekin baloratu zer ontasun dituen zure eskualdeak, beste indize batzuetan jaso gabekoak. |

**ZER DAKIZU LEHENDIK:**

1. Zer da BPG?
2. Nola kalkulatzen da?
3. Zer da per capitako BPG? Eta per capitako errenta?
4. Zertarako balio digu datu horiek urtez urte ezagutzeak?
5. Magnitude horietako edozeinetan hazkundea izateak esan nahi du eskualde horretako pertsona guztien ongizatea hobetuko dela?
6. Dirua al da, per capitako PIN edo per capitako errenta gisa neurtua, zuk aintzat hartzen duzun zorion iturri nagusia?




**ORAIN ZUK:**

Ikus dezagun beste herri batzuetan nola ikusten duten gai hau.

Begiratu bideo hau: https://www.youtube.com/watch?v=cEeSBk7opE0, Barne Zoriontasun Gordinaren gainekoa. BZG neurpideak BPGk (Barne Produktu Gordina) baino modu gizatiarragoan eta psikologikoagoan definitzen du bizi kalitatea. Butango errege Jigme Singye Wangchuck-ek proposatu zuen 1972an, bere herriaren pobrezia etengabeari egindako kritikei erantzuteko. Kontzeptu hori oso aplikagarria zen Butango ekonomiarentzat, gehienbat budismoan oinarritua baitago.

1. Zer alderdi jasotzen ditu BZGak?
2. Zure mobilarekin argazkiak atera zure eskualdeko Barne Zoriontasun Gordinaren Indize ustezko batean jaso litezkeen eta per capitako BPGan edo per capitako errentan jasotzen ez diren alderdiak biltzeko (gastronomia, herrietako festak, paisaiak, monumentuak, elezaharra, jantziak, kultura, eta abar.)
3. Eraiki ezazu indize alternatibo bat zeure “zoriontasuna” neurtzeko. Aurrena zerrenda bat egin zuretzat garrantzia duten aldagaiekin (osasuna, hezkuntza, errenta, kultura.....) eta ondoren pondera itzazu (talde txikia).

4. Zure ikasgelako BZGaren indize bat eraiki, talde txiki bakoitzean proposatu direnen gainean adostuz (talde osoa).

5. Zure ikasgelako BZG eraiki ondoren, emaitza atera ezazu, aldagai bakoitza 0-10 bitartean puntuatuz eta erabaki duzuen ponderazioa aplikatuz. Hartara, zuen “erkidegoan” duzuen ongizate “subjektiboa”ren berri jakingo duzue (talde osoa).

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

1. Gehiegi oinarritzen dugu gure bizi maila edo gure ustezko ongizatea dugun eta irabazten dugun diruan?

2. Pisu gehiago eman beharko genieke beste alderdi batzuei gure “zoriontasuna” neurtzerakoan? Zure kasuan, zeinei?

3. Esan liteke orain “zoriontsuagoa” zarela, alderdi horiek kontuan harturik?



## 4.5 JARDUERA Zuzentasunaren aurrekontuak

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Zerga Politika, politika ekonomikoko tresna gakoa da desberdintasuna iraultzeko. Jakin behar dugu zein diren gizarte zuzenago bat lortzen lagun dezaketen gastu eta sarrera publikoaren zutabeak. Intermon Oxfamek txosten bat itxuratzen du gure gaurko Zerga Politika islatzeko, justizia sozialen gainean dituen ondorioak, eta zenbait gomendio egiten geroan handiagoko desberdintasuna galarazteko. |
| Gaiak | Zuzentasuna, Zerga Politika, aurrekontu publikoak, aukera berdintasuna, iruzur fiskala. |
| Helburuak | • Gogoratu zein diren Zerga Politikako helburua eta neurri nagusiak.<br>• Ulertzea Zerga Politikako neurri progresiboak beharrezkoak direla edozein eskualde garatuk desiatu behar lukeen aukera berdintasuna bermatzeko. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Zuzentasuna, Zerga Politika, aurrekontu publikoak, aukera berdintasuna, zerga iruzurra.<br>**Prozedurak**: Aztertzea Zerga Politika bidegabe batek zer ondorio dituen desberdintasunari borroka egiterakoan.<br>**Jarrerak**: Aukera berdintasuna baloratzea gizarte bidezkoago baten ezaugarritzat. |
| Materiala | Webgunea ikusi edo esteka deskargatu Intermon Oxfamen txostena irakurtzeko:<br>Los Presupuestos de la Equidad |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Gogoratu zer den Zerga Politika, Politika ekonomikoko tresna gisa.<br>• Gogoratu zer ondorio dituen Zerga Politikak errenta pertsonal erabilgarria banatzerakoan.<br>• Jakin zer egoera duen gaur Espainiako Zerga Politikak eta horrek zuzentasunean zer ondorio duen.<br>• Gizarte ez hain desberdin eta kohesionatuago baten abantailak baloratzea.<br>• Jakin zer jarraibide edo gomendio ematen dituen Intermon Oxfamek gizarte berdinago baten bidean aurrera egiteko. |

## ZER DAKIZU LEHENDIK:

1. Zer da oreka makroekonomikoa? Definitu eta grafikoki irudikatu.
2. Oreka horrek efizientzia kontzeptua hartzen du aintzat. Gogoratzen al duzu printzipio horrek zer esan nahi duen?
3. Oreka horrek ez du hutsik edo badu? Nola definituko zenuke merkatu hutsegitea terminoa?
4. Zer merkatu hutsegite ikasi dituzu? Adibide batez deskribatu itzazu.
5. Pobreziaz mintzatzen bagara, zer merkatu hutsegiterekin lotuko zenuke?
6. Zer da *aukera berdintasunaren printzipioa*? Zure ustez pertsona guztiek aukera berdintasuna dute?




## ZENBAIT JAKINGAI INTERESGARRI:

Eurostatek dioenez (2014), Espainian desberdintasunak, Giniren koefiziente harmonizatuak (EBeko etxe baliokideen errenta erabilgarria) gora egin du: 0,313tik (2006) 0,344ra (2010) eta 0,350era (2012). Koefiziente horrek errentaren banaketako desberdintasuna neurtzen du, 0tik, non pertsona guztiek errenta erabilgarri bera duten, 1era bitarte, non pertsona bakar batek errenta erabilgarri guztia beretzat dauka (Corrado Gini, 1912).

Espainia, gaur, EBeko bigarren herririk desberdinena da, Letonia (0,357) aurretik duela, eta Portugal (0,345), Grezia (0,343) eta Irlanda (0,330) atzetik; eta Italia (0,319), Frantzia (0,305) eta Alemania (0,283) Urruti ditu. Norvegia (0,227) da berdinena. Horrez gain, Portugalek, Greziak eta Italiak beren desberdintasuna gutxitzea lortu dute, 2007an Gini koefiziente handiagoak baitzituzten Espainian, Italian (0,338), Portugalen (0,381) baino, edo berdinak, Grezian bezala (0,350).

**ORAIN ZUK:**

Intermon Oxfamek idatzitako txostenean (Los Presupuestos de la Equidad) Estatuaren Aurrekontu Orokorra desberdintasuna iraultzeko tresna gakotzat aurkezten da.

EAO-ak bi atal handi izaten ditu: Gastu publikoak eta diru-sarrera publikoak.

**Gastu politikak** hiru zutabe nagusi ditu, gizarte zuzen baten bila gabiltzala begiratu beharrekoak:

a. Gure mugetatik kanpo gizarte babesa eta aukera berdintasuna bermatzen dituzten partiden bilakaera: Garapenaren aldeko laguntza ofiziala.
b. Gizarte babesa eta aukera berdintasuna bermatzen dituzten partiden bilakaera: Hezkuntza eta osasun arreta.
c. Gizarte jaikiera bermatzen duten partiden bilakaera.

**Dirusarrera politikak** honako oinarrizko printzipio hauek bete behar lituzke.

a. Progresibitatea.
b. Askitasuna.

Arretaz irakurri Los Presupuestos de la Equidad txostena eta ikusi zein den gaurko egoera gure herrian arestian aipatu gastu eta sarrera kapitulu bakoitzean. Laburki deskribatu nola bilakatu diren magnitude horiek azken urteetan.

Kopia itzazu GKEak desberdintasunari aurrekontuetatik borroka egiteko egiten dituen gomendioak eta haietako bakoitza ikertu nola diharduten jakiteko:

1. ..........................................................................
2. ..........................................................................
3. ..........................................................................
4. ..........................................................................
5. ..........................................................................
6. ..........................................................................
7. ..........................................................................
8. ..........................................................................
9. ..........................................................................

## **GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

1. Zer da *aukera berdintasunaren printzipioa*? Zure ustez, pertsona guztiek ba al dute aukera berdintasuna? Zeren mende dago hori?
2. Gure “zoriona” neurtzerakoan beste alderdi batzuk hartu behar genituzke aintzat”? Zure kasuan zein?
3. Zergak pagatzea atsegin zaizu? Zertarako balio dute? Zeren truke pagatuko zenuke zer gehiago?



## 4.6 JARDUERA Aberastasuna: dena eduki, ta gehiago nahi

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | *Per capitako* errenta edo *per capitako* BPG kalkulatzeko, herrialde bateko errenta edo produkzioaren balioa zati haren biztanle kopurua egiten da. Herri hartako populazioak batez beste duen errentari oro har antz emateko balio du beraz. Horrek ez du esan nahi biztanle guztiak kopuru horretatik hurbil dabiltzanik, alde handiak egon daitezke, eta horrek bidegabekerien eta gizarte gatazken iturria da. |
| Gaiak | Per capitako errenta, aberastasuna, berdintasuna, justizia soziala, zuzentasuna, efizientzia. |
| Helburuak | • Aztertu ekonomiaren hazkundea versus zuzentasun ezaren hazkundea.<br>• Ulertu desberdintasunaren hazkundea geroko ezegonkortasun eta gatazka iturria dela. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Per capitako errenta, aberastasuna, berdintasuna, justizia soziala, zuzentasuna, efizientzia.<br>**Prozedurak**: Aberastasuna gero eta esku gutxiagotan kontzentratzea salatzen duten artikuluak aztertzea.<br>**Jarrerak**: Auzoen arteko zuzentasuna hobetsi gizarte batek hazkunde handia eta desberdintasun zabala izatea baino. |
| Materiala | Intermon Oxfamen ikerketa txostenaren esteka:<br>"Riqueza: tenerlo todo y querer más" |
| Agiriak | Intemon Oxfamen txostena:<br>"Riqueza: tenerlo todo y querer más"<br>Galdeketa.. |
    - Produkzioan esku hartzen duten energia iturriak.
    - Kontsumitzailearendako azken buruko prezioa.
    - Ikerketarako ardurakoa dela iruditzen zaizun guztia.
8. Ekialdeko mundura sartzeko entseguak berriz daude albisteetan. Duela zenbait urte etorkinak patereetan etortzen ziren, orain barnealdeko kanpamentuetan zain daude Melillako hesi arriskutsua noiz saltatuko.

    Aurkezpen bat prestatu egoera hori islatzeko, liburuko historiaren testuinguruan.
























## **GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?



Pentsa ezazu zeuretzat zer on-gaitz dituen globalizazioaren fenomenoak zenbait alderditan.

Gaitz horietakoren bat azpimarratu eta hari kontra egiteko neurriak proposatu.

## 6.2 JARDUERA Gatazkarik gabeko Teknologia

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Zabor Teknologikoaren gainean gogoeta egin. |
| Gaiak | Teknologia, mobilak, ingurumena, zabor elektronikoa, e-waste. |
| Helburuak | • Jakitea zer material behar izaten diren mobilak fabrikatzeko.<br>• Material horien jatorria ezagutu.<br>• Gatazkapeko materialen kontzeptuaz gogoeta egin.<br>• Mobilekiko ditugun kontsumo ohiturak gogoetagai hartu.<br>• Gure mobilen ibilbidea non bukatzen den jakin.<br>• Sortzen dugun zabor elektronikoa gogoetagai hartu. |
| Denbora premia | Gutxienez 5 ordu irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Gatazkapeko mineralak, zabor elektronikoa, e-waste, kontsumo errespontsablea.<br>**Prozedurak**:<br>• Informazioa bilatu ikasi diren kontzeptu desberdinen gainean.<br>• Bilatu diren datuak aztertu eta gogoeta egin.<br>**Jarrerak**: Baloratzea zer erantzunbehar dugun, kontsumitzaile garen partez, erabiltzen ditugun mobilak fabrikatzeko behar diren materialak eskuratzeko sortzen diren gatazka eta giza eskubideen urraduretan, eta konturatzea, halaber, gure kontsumo deskontrolatuak sortzen duen zabor elektronikoa arazo handia dela. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>ALBOANek “Gatazkarik gabeko Teknologia” kanpainarako egindako materialetatik egokitutako hainbat bideo eta irakurgai. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Interneten informazioa bilatu<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## **1. PROPOSAMENA:** ESADAZU ZER MOBIL DITUZUN (eta esango dizut nor zaren)

Galdeketa honi erantzun:

| | |
|---|---|
| Mobilaren izena | |
| Mobilaren prezioa | |
| Non egina da? | |
| Zer materialekin egina da? | |
| Zertarako erabiltzen duzu?<br>(lana aisia / erabilitako aplikazioak) | |
| Zenbat mobil izan dituzu hau baino lehen? | |
| Zergatik aldatu zenituen? | |
| Zer egin duzu lehengo mobil haiekin?<br>(gorde, erreziklatu, bota, beste norbaiti eman ...) | |
| Zenbatero aldatzen zara mobilez? | |
| Zenbat mobil daude zure familian?<br>(esan zenbat pertsona eta zenbat mobil) | |

## **2. PROPOSAMENA:** IKERTZEN...

1. Mobilak fabrikatzeko erabiltzen diren materialen gaineko informazioa bilatu.
2. Nola defini genitzake “gatazkapeko mineralak”?
3. Osa ezazu ondoko taula honako mineral hauen erabilerak aipatuz.

| MINERALAK | ERABILERAK |
|---|---|
| Tantaloa | |
| Tungstenoa/ Wolframioa | |
| Eztainua | |
| Urrea | |

## **3. PROPOSAMENA:** MOBIL BERRIA DEBALDE? EZ ESKERRIK ASKO.

1. Dokumentu hau irakurri:
   http://blog.cristianismeijusticia.net/?p=6513&lang=es
2. Irakurritakoa gogoetagai hartu.

## **4. PROPOSAMENA:** ZABOR ELEKTRONIKOA



1. Ikusi dokumental hau: *La tragedia electrónica.*
https://www.youtube.com/watch?v=jYstVpdj3KU



2. Dokumental hau ikusi: *La obsolescencia programada.*
https://www.youtube.com/watch?v=24CM4g8V6w8

3. Bi dokumentaletan ikusi duzuna gogoetagai hartu.

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

- PROPOSAMENA: KANPAINA EZAGUTARAZI: Alboan-en webgunean informazioa bilatu eta zenbait esplikazio kartel egin Gatazkarik gabeko Teknologia kanpainiarako.
- 2. PROPOSAMENA 2: EROSKETARAKO DEKALOGO BAT EGIN, gure mobil kontsumoaz gogoeta eragiteko modukoa.
- 3. PROPOSAMENA: MOBIL BILKETA BAT ANTOLATU, eta ondoren, modu seguru eta garbian erreziklatzen diren toki batera eraman.
- 4. PROPOSAMENA: GAIAREN GAINEKO FILM LABURRA EGITEA: Teknologia berriak erabili eta gaiaren gainean film labur bat egin beste ikaskide batzuek gaiaz jantzi daitezen.



## 6.3 JARDUERA Errefuxiatuak

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, errefuxiatuek Europan sortu duten arazoa aztertu. |
| Gaiak | Europa, Errefuxiatuak, Desplazatuak, Migranteak, Eskubideak, Erantzunbeharra. |
| Helburuak | • Jakin zertan den diferentea errefuxiatua, desplazatua eta migrantea.<br>• Siriako errealitate geopolitikoa ezagutu.<br>• Errefuxiatuen egoera gogoetagai hartu.<br>• Europako Batasunaren erantzuna gogoetagai hartu.<br>• Europako Batasunaren erantzunbeharra gogoetagai hartu.<br>• Guk Europako herritar garen partez dugun erantzunbeharraz gogoeta egin. |
| Denbora premia | Gutxienez 3 ordu irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Europako Batasuna, Errefuxiatuak, Desplazatuak, Migranteak.<br>**Prozedurak**:<br>• Ikasitako kontzeptuen gaineko informazioa bilatu.<br>• Bilatu diren datuak aztertu.<br>• Siriako errealitate geopolitikoa aztertu.<br>**Jarrerak**: Europako Batasunak emandako erantzuna baloratu eta geure erantzunbeharraz gogoeta egin. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Hainbat bideo. |
| Agiriak | Galdeketa |
| Garapena | • Interneten informazioa bilatu<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## INFORMAZIO PIXKA BAT:

Gizajendearen historian zehar, milioika pertsona egon dira, hainbat arrazoigatik, beren jatorrilekua utzi beharrean: Hasi beste mundu batzuk ezagutzeko desiotik, beren baldintza sozial ekonomikoak hobetu nahia bitarte, harik eta beren bizitza eta beren jendearena salbatzeko beren ingurunea utzi beharreraino.

Kontuan harturik zer arrazoi izan zituzten pertsona horiek beren etxeak uzteko, hainbat lege figura desberdin aurkitzen ditugu. Hona haietako batzuk:

- **Errefuxiatua:** Pertsona hauek, arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte talde batekoak izateagatik, beren iritzi politikoengatik edo genero edo sexu identitateko arrazoiengatik pertsegituak izateko “beldur oinarritua” zutelako alde egin zuten beren nazionalitateko edo bizileku arrunteko herrialdetik, ez dute beren jatorri edo bizilekuko babesera jo nahi eta ez dute itzuli nahi. (1951ko Ginebrako konbentzioak eta 1967ko Protokoloak emandako definizioa).

  Konbentzioa onartu duten estatuek lege eskakizun horiek bere dituen atzerritarrari errefuxiatu estatusa eman behar diote. Ezin dute bere herrialdera itzularazi.

- **Desplazatua:** Beren etxeak uztera beharturik egon diren pertsonak, bereziki gatazka armatuak, barne bortizkeria, giza eskubideen urradura, desastre naturalak edo giza eskuak eragindakoak zirela medio, baina nazioartean onetsitako mugak gainditu ez dituztenak. Desplazatuak beren herrialdean daude. ACNURrek dioenez, munduan errefuxiatuak baino ia gehiago dira desplazatuak.

- **Migranteae:** Beste herrialde bateko muga gainditu eta formalki han sartu eta gelditzeko baimena eskatzen duen (edo ez duen) pertsona da migrantea. Migrante hitzak bai joaten direnak (emigranteak) eta bai etorkinak hartzen ditu barne. Egoera erregularrean nahiz irregularrean egon daitezke:

  - ***Egoera erregularra:*** bere herrialdetik atera eta beste batera sartzeko baimena duen pertsona: turista, bizilekua eta lana, aldi bateko egonaldia, iragaitza baimena.
  - ***Egoera irregularra:*** Herrialde batean hartarako baimenik izan gabe finkatzen den pertsona. Babes bila datozenak izan daitezke nahiz beren herritik borondatez arrazoi ekonomikoengatik, bizitza hobetu beharrez, alde egiten dutenak.

Izaskun Lara (UNRWA) eta Ani Urretavizcaya (ALBOAN)
Elkartasun Eskolak, prestakuntza
2015-16 ikasturtea

## ORAIN ZUK:

### **1. PROPOSAMENA:** Zer gertatzen ari da munduan?

Interneten informazioa bilatu munduan dauden gatazken gainean. Behin datuak jakinez gero, gogoeta egin jaso duzun informazioaren gainean. Zuk uste baino gatazka gehiago ala gutxiago daude? Haietakoren bat harrigarria egin zaizu? Zergatik?

Bila ezazu Interneten edo egunkarietan berriren bat Errefuxiatuen, desplazatuen eta migranteen gaineko datuak dakartzana. Behin datuak jakinez gero, gogoeta egin jaso duzun informazioaren gainean. Zuk uste baino errefuxiatu, desplazatu edo/eta migrante gehiago daude? Daturen bat harrigarria egin zaizu? Zergatik?

Paueko Kultura Eskolaren webgunea erabil dezakezu.

### **2. PROPOSAMENA:** Zer gertatzen ari da Sirian?

Atzera begiratu eta geure gurasoei galdetzen badiegu, segur egon gaitezke haiek ere gogoan dituztela gerra zibileko eta gerra ondoko urte haiek, zeinetan espainiar asko beren etxea utzi beharrean egon ziren, aldean zutena beste ezer eraman gabe.

Gaur egun, munduko toki askotan ere familia asko ari dira amets gaizto hori bizitzen. Azter dezagun oraingo gatazketatik hurbilenetakoa eta mediatikoenetakoa den bat. Bai. Siria dugu hizpide.

Batzuetan, zaila da esplikatzea gatazka baten benetako jatorria zein den, urte asko lehenagotik heldu delako eta alderdi batak zein besteak gogotik joana dutelako hasierako arrazoia. Hala ere, gatazka gehienetan interes ekonomikoa egoten da azpian.

Dagoeneko 5 urte iragan dira Sirian gerra zibila hasi zenetik. Hasieran hura herri hartako erregimenaren aldekoen eta kontrakoen arteko gerra zibila zela ematen bazuen ere, korapilatuz joan da, beste talde batzuek elkar-talka hartan esku hartzea erabaki eta bertan agertu direlako; horren ondorioz hango egoera, lehendik ere gogor askoa, are okerragotu da.

- Kanpotik kosta egiten zaigu gatazka hartan nor den nor ezagutu, antz eman eta ulertzea. Irudi batek mila hitzek adina balio badu, ikus dezagun ... Siriako gatazka 5 minututan.

https://www.youtube.com/watch?v=znRMrAsCE_U

1. Estekan ageri den bideoa ikusi.

2.- Laburpen bat eginen al zenuke zure ikaskideei esplikatzeko?

## **3. PROPOSAMENA**: Horrelakorik ezin da hemen gertatu. Ala bai?

1. Bideo hau ikusi: Hemen ez gertatzeak ez du esan nahi inon gertatzen ez denik:

   https://www.youtube.com/watch?v=0G9RW4BS0xM

   Bai, gezurra ematen badu ere, Siriatik Europara iristen ari diren pertsona eta familia gehienak zu bezalako pertsonak ez ezik, berriki arte zu bezala bizi izaten ziren pertsonak ere ziren: lan ona zuten, gurasoak, etxea zuten, eskola, adiskideak. Haien bizimodua segur aski ez zen zuretik oso diferentea. Hala ere, goizetik gauera, haientzat dena aldatu zen.

2. Irudimen saio txiki bat egiteko eskatuko dizut. Oso erraza da.

   Demagun zeure etxean zaudela, zeure familiarekin eta norbait datorkizula etxera (konfiantzako pertsona bat, jakina) eta esaten dizu alde egin behar duzuela, bizitza arriskuan duzuela.

   Zuk eta zure familiak zehazki 3 minutu dituzue zer eraman erabakitzeko. Ongi pentsatu, zeren segur aski ezin itzuliko zara eraman ez zenuena berreskuratzera, eta betiko galdu izanen duzu. Gainera ez dakizu ongi nora zoazen eta beraz gauza baliagarriak, behar izango dituzunak hautatu beharko dituzu, baina aldi berean arinak eta toki handirik hartzen ez dutenak, ez baitakizu zure ihesa gero autoan egiteko modua izanen duzun ala oinez ibili beharrean izanen zaren. Gogoratu, gainera, agian ezin izanen duzula ura edo jatekoa bezalako gauza oinarrizkorik lortu.

   Hori dena kontuan, zer eramanen duzu?

   "Un cole en una tienda de campaña"<br>materialetik egokitua<br>Alboan GGKE

3. Zuk eta zure ikaskideek zuen zerrenda osatu ondoren, komunean jarri eta aztertu zer hautatu duzuen bakoitzak.

## **4. PROPOSAMENA**: Nora joan?

Mapa bat egin eta bertan ibilbide horiek eta haien gaineko hainbat datu bildu: ibilitako distantzia, pasatu beharreko herrialdeak, pasatu beharreko tokien ezaugarri geografikoak...

Haien lekuan jarri... zer iruditu zaizu bidaia?

## **5. PROPOSAMENA**: Erraza da errefuxiatu estatusa lortzea?

*"Errefuxiatuek topatzen duten labirinto burokratikoa. Bidaia arriskutsu baten ondoren, asilo bila datozenek denetariko tramite eta oztopoei egiten diete aurre, bizitza normalizatua eramatea ezintzeko moduan."*

http://www.lamarea.com/2016/04/09/la-dura-ruta-de-acogida/

Irudika ezazu egun askoren buruan, egoera larri eta arrisku asko gainditu ondoren (hotza, janari falta, higiene falta, engainatu eta lapurtu nahi zaituzten mafiak, pertsegitzen zaituzten soldaduak...), suerte handiarekin zu eta zure familia herrialde bateko mugara iritsi zaretela, non, ustez, segurik egonen zareten eta bizitza berria hasteko modua izanen duzuen.

Zer pauso segitu behar dituzu Errefuxiatu Estatusa lortzeko?

ACNURren webgunea begiratuz lagundu.

http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/7575.pdf?view=1

## **6. PROPOSAMENA**: Zer egiten du Europak?

Informazioa bilatu Europako Batasunak Siriako "migrazio krisia" deituari ematen dion erantzunaz.



- Bideo hau ikusi: *¿Quién da menos? La subasta de refugiados de la UE.*

https://www.youtube.com/watch?v=cT52TbhAVzA

Aztertu honako prentsa izenburuak:

*Bruselak errieta egiten die 28 herrialdeei errefuxiatuengatik.*
*Espainiak ez du inor hartu 2015eko abendutik hona.*
*6.000 birkokatzeetatik 208 besterik ez da egin.*

Asteazkena, 2016ko apirilak 13

*Espainiak konpromiso handiagoa hartu dezake, behar ere bai, Errefuxiatuekin. ACNURren ordezkariak esan du:"Espainiak behar diren baldintza guztiak baditu bere harrera-kopurua handitu eta hegoaldeko herrien artean arlo horretan herri puntako bihurtzeko.*

Heraldo de Aragón. 2016ko apirilaren 13koa

## **7. PROPOSAMENA**: Zer egin dezakegu?

Egoera aztertu eta Siriako (edo beste herri bateko) egoeraren gainean eta Europako Batasunak duen jokabidearen gainean gogoeta sakona egin ondoren, agian zerbait egiteko gogoa jarri zaizu. Baina orain sortzen zaigun galdera horixe da: Zer egin dezakegu?

Hainbat proposamen ematen dizkizugu:

1. Taldeka, Siriako (edo gatazkan den beste herri bateko) egoera azaltzeko kartel batzuk eginen ditugu. Ez dezagun ahaztu orain hedabideetan Siriako berriak besterik entzuten ez badugu ere, Siriakoa ez dela orain ari den gatazka bakarra eta zuen arreta jar zenezaketela zuen etxetik oso hurbil gertatzen ari diren gauzak ikasle zein irakasleei ezagutzera emateko.

2. Proposamenen dekalogo bat egin Europako Batasunaren ekintzarako protokolotzat.

## 7. MULTZOA

# Desoreka ekonomikoak eta Estatuak ekonomian duen papera

- Ekonomiaren krisi ziklikoak.
- Estatua Ekonomian. Erregulazioa. Merkatuaren hutsegiteak eta sektore publikoaren esku-hartzea. Aukera berdintasuna eta aberastasunaren birbanatzea.
- Hazkunde, egonkortasun eta garapenerako politika makroekonomikoen balorazioa.
- Ingurumena baliabide hauskor eta eskasa dela ulertzea.
- Pobreziaren eta azpigarapenaren arrazoiei eta litezkeen ebazpideei antz ematea.

## *Arlo teorikoa*

Ekonomiak ez dira hazten modu etengabe eta uniformean. Gorabeherak badituzte: zabaltze eta hazkunde aldiak izaten dira eta, ondoren, krisiak edo errezesioak. Krisi edo errezesio aldi horietan produkzioa gelditu eta langabezia tasek gora egiten dute; familien errenta erabilgarria, beraz, gutxitu, eta familiak pobretzen dira.

Ekonomia guztien azken buruko helburua pertsonen ongizatea da. Begira diezaiogun munduari, ordea. Hori lortu al da? Gaur munduan den desberdintasunaren adierazpide argienetako bat pobrezia da. Bai gizabanakoei bai gizataldeei eragiten die eta herri pobretuenetan ez ezik, herri aberatsetan ere aurkitzen da, han ere bai baitaude pobreziaren atalaseaz beherago bizi diren pertsonak.

Baina, Zer da pobrezia? ***Pobrezia*** honela defini genezake: Gizakiaren gutxieneko premiak, dela materialak (janaria, etxea, ur edatekoa...) dela sozialak eta politikoak (osasun arreta, hezkuntza, eskubide politikoen aitormena...) asetzeko moduko baliabiderik, bitartekorik edo aukerarik eza. **(7.1 JARD.)**

Herri batzuetan populazioak eguneroko elikadura oinarrizkoa ere segurtatu gabe daukan bitartean, lehen munduko herri askotan milaka tona janari zakarretara botatzen dira. Nola da posible egoera hori? **(7.2 JARD.)**

Pobrezia, gainera, ez dago loturik pertsona baten gaurko egoerarekin, baizik eta pertsona horrek gero batean bere egoera hobetzeko (edo gutxienez ez okerragotzeko) dituen aukerekinbaizik.

Pobrezia iraunarazten duten faktoreen artean honako hauek aipa ditzakegu: Merkataritza desberdina, indarkeria eta gerra, ororendako osasun eta hezkuntza politikarik eza, erregimen ustelak egotea... eta litezkeen ebazpideen artean,

hauek aipatuko ditugu: ororendako hezkuntza derrigorrezkoa ezartzea, ororendako osasun arreta, errentaren birbanatzea, nazioarteko merkataritzarako ordena berri abiatzea, Kanpoko zorra barkatzea.

Gainera azken urte hauetan gizarteetan gero eta gehiagoko kezka dago ingurumenaren gainean. Baliabide naturalak agortu egiten dira eta produkzio jarduera askok kutsadura sortzen dute. Zer neurritan horren erantzunbeharra gizakiarena da? Hazkundea garapen jasangarriarekin bateraezina da?

Hazkundea gizarte sobera zorpetuentzat posible da? Kanpoko zorra ***betiko zorra*** ote da? Kanpoko zorra barkatzea eska daiteke herri horiek garatzeko aukera izan dezaten? **(7.3 JARD.)**

Pobrezia, kutsadura eta Kanpoko zorra hartu ditugu ahotan, herri pobretuenen ezaugarri diren faktore batzuk baitira. Gainera, herri aberatsenen eta pobreenen arteko aldea urtez urte handiagotzen da. ***Zer egin dezakegu?*** "*Norte-Sur: la fábrica de la pobreza*" dokumentalak bide ematen digu pobreziari buruzko datu batzuk ikasi, pobreziaren zenbait arrazoiri antz eman eta pobrezia iraunarazten duten mekanismoetako batzuk ezagutzeko, halatan non desberdintasunak gutxiagotu beharrean ugaldu egiten diren. **(7.4 JARD.)**

## *Jarduera*

| 7.1 JARDUERA | Pobrezia |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, pobrezia kontzeptuaren gainean gogoeta egin. |
| Gaiak | Pobrezia, zuzentasun eza. |
| Helburuak | • Pobrezia kontzeptua ezagutu .<br>• Pobrezia eta eskasia bereizi.<br>• Pobrezia bultzatzen duten faktoreak gogoetagai hartu .<br>• Pobreziarentzat litezkeen ebazpideak aztertu.<br>• Espainiako pobreziaren gainean informazioa bilatu. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Pobrezia, faktore pobregarriak.<br>**Prozedurak**:<br>• Pobreziaren gaineko zenbait definizio bilatu.<br>• Pobrezia eta eskasia bereizten ikasi.<br>• Pobreziak munduan eta gure hurbileneko inguruan duen egoera gogoetagai hartu.<br>• Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Desberdintasunak izatea baloratu. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Pobrezia kontzeptuaren gaineko teoria irakurri.<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## **1. PROPOSAMENA**: Pobreziaren definizioa

1. Pobreziaren definizio bat bilatu.
2. Ados al zaude definizio horrekin? Ezagutzen dituzun pobrezia egoera guztiak barne hartzen al ditu?
3. Eskasia eta pobrezia kontzeptuak konparatu.

## **2. PROPOSAMENA**: Zaurgarritasuna *versus* Pobrezia

Langabezi tasa handia duen herri batean, lana duten pertsonak ere kezkaz egonen dira, gutxieneko premiak asetzeko errenta bat jasotzen badute ere. Kaleratzeko beldurra dela medio, pertsona horiek lan baldintza okerragoak eta bai abusu ilegalak ere onartzeko prest egoten dira:

1. Ados al zaude?
2. Beren bizibidea galtzeko beldurragatik pertsonarentzat kaltegarri liratekeen baldintzak ere onar litzakete batzuetan?
3. Egoera horrek ez al dakar pertsona horientzat nolabaiteko pobretzea ere? Zergatik?
4. Zeren mende egonen da gero batean egoera hobetzea?
5. Hurbileko adibiderik ezagutzen al duzu?




## **3. PROPOSAMENA**: Milurtekoko garapen helburuak (ODM)

1. Milurtekoko garapen helburuen gaineko informazioa bilatu.
2. Zein dira helburu horiek? Helburu horiek zure ikaskideei aurkezteko esplikazio koadro bat egin.
3. Nola laguntzen du helburu horietako bakoitzak pobrezia gutxitzen?
4. 2016. urtean, zure ustez, helburu horietakoren bat iritsi al da? Zeintzuk? Zergatik?

**4. PROPOSAMENA**: Giza Garapenaren gaineko txostena- GGT

1. Informazioa bilatu Giza Garapenaren gaineko txostenaz.

2. Zerrenda bana egin itzazu hainbat irizpide desberdinen arabera pobrezia maila handiena duten herriekin: jaiotzearen uneko bizi esperantza, edateko uraren irisgarritasuna, neska-mutilen arteko diferentziak, Eskolaratze tasa.

3. Azter itzazu zerrenda horiek eta begiratu zein kontinente diren pobretuenak eta horren arrazoiak aztertu.

4. Aztertu Europako herrialdeetarako datuak, zeure herrialdea beste gainerakoekin konparatuz.

**5. PROPOSAMENA**: Pobrezia zeure etxetik hurbil ere bai

1. Informazioa bilatu zure herrian edo eskualdean dagoen pobreziaren gainean.

2. Zein gizarte talde dira pobreenak? Zergatik, zure ustez?

3. Pobretze horren arrazoiez gogoeta egin.

4. Informazioa bilatu Gobernuak edo udal erakundeek pobreziari borroka egiteko hartu dituzten neurrien gainean.

**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

Proposatu herrialde pobretuei laguntzeko moduko zenbait neurri



## 7.2 JARDUERA JATEKOA ZABORRETARA

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Egunero familiek, supermerkatuek eta jatetxeek tona asko janari botatzen dituzte edukiontzietara, denak egoera onean. Bitartean, beste herri batzuetan, jendeak bizirik irauteko borroka latza egin edo eskas elikatzen da. Horren gaineko lege argi bat ez egoteak bitasun horri bide ematen dio. |
| Gaiak | Aukera berdintasuna, pobrezia, alferrik galtzea, zuzentasuna, justizia soziala. |
| Helburuak | • Erkatu gure gizartearen bizi maila familietako gasturik handiena –elikadura- aintzat harturik.<br>• Ikaslea ohartaraztea zenbat janari alferrik galtzen den eta denbora berean horrek zer aukera kostu dakarren eta soberakin horrek elikagaien prezioaren gainean duen eraginaz ere pentsarazi. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Aukera berdintasuna, pobrezia, alferrik galtzea, zuzentasuna, justizia soziala.<br>**Prozedurak**: Janariak alferrik galtzearen arazoa esplikatu, horren gaineko kontzientzia hartu eta janari prezioen beheratzea eta haien kontsumo arduratsua faboratzen duten neurriak abiarazi.<br>**Jarrerak**: Baloratu Mendebaldean nola asetzen dugun gure janari premia eta hegoaldean, berriz, zer pobrezia bizi duten. |
| Materiala | El escándalo del despilfarro alimentario y de tirar comida a la basura por negocio bideoaren esteka.<br>Gosearen eta Malnutrizioaren kontrako Itunaren txostena Espainian: ¿Cómo reducir las pérdidas y desperdicios de los alimentos? Guia para una actuación responsable |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Bideo hau ikusi: “El escándalo del despilfarro alimentario y de tirar comida a la basura por negocio”.<br>• Galdeketari erantzun.<br>• Gosearen eta Malnutrizioaren kontrako Ituna GKEak egiten duen analisia eta arazoari aurre egiteko proposatzen digun ebazpidea irakurri<br>• Zenbait gogoetagairen gaineko galdeketari erantzun. |

## INFORMAZIO PIXKA BAT:

- Arretaz ikusi eta entzun bideo hau:

El escándalo del despilfarro alimentario y de tirar comida a la basura por negocio

### ORAIN ZUK:

Bideo-dokumentala ikusi ondoren, talde txikian honako galdeketa honi erantzun:

1. Nola justifikatzen dute inplikaturik dauden alderdi desberdinek janaria zaborretara botatzea?
2. Zer ebazpide proposatzen dira?

### BERRIZ ERE ZUK:

Espainiako Gosearen eta Malnutrizioaren kontrako Itunak arazoari aurre egiteko itxuratu duen gida hau irakurri. Hemen duzu aurkezpen txiki bat.

> "Elikadura sistemaren kontzeptuak elikagaiak produzitu, elaboratu, banatu, prestatu eta kontsumitzearen inguruko baliabideak, eragileak –eta eragileen arteko harremanak- prozesuak eta jarduerak hartzen ditu barne, eta bai prozesu eta jarduera horien emaitzak ere, emaitza sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak ere barne direla.
>
> Elikadura sistema bat jasangarria izan dadin, pertsona guztiei bermatu behar die elikagai segurtasuna eta nutrizioa oraintxe, etorkizuneko belaunaldiei ere elikagai segurtasuna eta nutrizioa eman ahal izateko oinarri ekonomiko sozial eta ingurumenekoak arriskutan jarri gabe.
>
> Gaur egungo elikadura sistemek PDA asko sortzen dituzte, halakotzat elikadura kateko punturen batean galdu edo deskartatzen diren giza kontsumoko elikagaiak (FAOk erabiltzen duen PDA kontabilizatzeko sistemak ez ditu barne hartzen alorretan uzta baino lehen galtzen diren elikagaiak)."

Alianza Nacional contra el Hambre y la Malnutrición de España

Esteka honetan duzu txosten osoa:

¿CÓMO REDUCIR LAS PÉRDIDAS Y DESPERDICIOS DE LOS ALIMENTOS?
GUIA PARA UNA ACTUACIÓN RESPONSABLE

Orain aurkezpen bat egin ezazu nahiago duzun programarekin txosteneko ideia nagusiak aterata.




**GOGOETARAKO JARDUERAK.** Zer egin dezaket nik?

1. Dokumentalean neronen janari ohiturak islaturik ikusten al ditut?
2. Zer egin dezakezu zuk arazoa konpontzen laguntzeko?
3. Zure uste,z zure ekintzak zerbaitetarako izan daiteke arazoa konpontzeko?



## 7.3 JARDUERA Kanpoko zorra

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | Klasean ikasitakoa oinarri, Kanpoko zorraren kontzeptua gogoetagai hartu. |
| Gaiak | Kanpoko zorra, Pobrezia. |
| Helburuak | • Kanpoko zorraren kontzeptua ezagutu.<br>• Kanpoko zorra pobrezia sortzeko faktorea dela ulertu.<br>• Kanpoko zorra eta haren jatorriaren gaineko informazioa bilatu.<br>• Kanpoko zorra barkatzeko ideiaren gainean gogoeta egin. |
| Denbora premia | Gutxienez ordubete irautekoa. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Kanpoko zorra, Pobrezia.<br>**Prozedurak**:<br>• Kanpoko zorraren gaineko hainbat definizio bilatu.<br>• Kanpoko zorrak, pobretze faktorea den partez, duen garrantziaz gogoeta egin.<br>• Proposatutako ariketak egin eta emaitzak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Kanpoko zorra barkatzeak izan lezakeen garrantzia baloratu. |
| Materiala | Ikasliburua, Wikipedia.<br>Hainbat ariketa.<br>Idazteko materiala.<br>Intermon Oxfam-en "*Las cifras de la desigualdad*" liburuaren pasartea. |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Kanpoko zorraren gaineko informazioa bilatu .<br>• Proposatutako ariketak egin.<br>• Jasotako erantzunak gogoetagai hartu. |

## 1. PROPOSAMENA:

1. Kanpoko zorraren definizio bat bilatu.
2. Informazioa bilatu Kanpoko zor handiena duten herrialdeen gainean.
3. Non daude Kanpoko zor handiena duten herrialdeak?

## 2. PROPOSAMENA: Kanpoko zorraren jokoa

**KANPOKO ZORRA = BETIKO ZORRA**

Joko erraz baten bidez, ulertuko dugu Kanpoko zorraren mekanismoa zein den. Kalkulatuko dugu Kanpoko zorrak nola bultzatzen duen herri askoren pobretzea.

### ENUNTZIATUA:

Demagun herri bateko –adibidez, Brasilgo- presidentea zarela.

Demagun halako batean zure bulegoan Estatu Batuetako bankari batzuk azaltzen zaizkizula eta 1.000 milioi dolarreko mailegu bat eskaintzen dizutela, 10 urtetan itzuli beharrekoa, eta urtean %5eko interes tasa interesgarri batean.

Demagun dolar bat 100 kruzeiro adina dela (Brasilgo dirua kruzeiroa da). Beraz, mailegu hori onartzen baduzu 100.000 milioi kruzeiroko zorra izanen duzu. Lehen urtean pagatuko zenituzkeen interesak, %5ean, 5.000 milioi kruzeiro lirateke (hots: 100.000 milioi kruzeiroren %5)

Onartzen baduzu, urtero pagatu beharko dituzu maileguaren interesei dagozkien interesak.

Ekonomia ministroarekin eta haren kabinetearekin bildu ondoren, erabakitzen duzu negozio ona dela eta sinatu egiten duzu.

Ikus dezagun zer gertatzen den 10 urteren buruan, kontuan harturik zorpeko herri gehienek bizi behar izan dituzten egoerak.

Iturria:

| | |
|---|---|
| **1. urtea** | 1.000 milioi dolarreko zorra duzu, hau da, 100.000 milioi kruzeirokoa. Interes tasa %5ekoa da. Lehenbiziko urte honetan 5.000 milioi kruzeiro pagatuko dituzu interesengatik. (datuak taulan) |
| **2. urtea** | EEBBetako politikak interes tasak igoarazten ditu hasierako %5 hartatik %10era. Interesengatiko pagamendua handitzen da. Hezkuntza aurrekontua murriztea erabakitzen duzu eta murrizketa horri esker aurtengo interesak pagatzea lortzen duzu (osatu taula). |
| **3. urtea** | Estatu Batuen politikak zure moneta dolarrarekiko izugarri debaluatzea sortzen du. Horrek esan nahi du kruzeiroak balioa galdu duela eta beraz orain kruzeiro gehiago behar dira dolar bat erosteko. Beraz zure hasierako zorra doblatu egin da. Zure ekonomiak ez dizu uzten aurten 10.000 milioi kruzeiro baino gehiago pagatzea interesengatik. Beraz kreditu osagarri bat eskatu behar duzu gainerakoa pagatzeko. |
| **4. urtea** | Herri aberatsetako krisi ekonomikoak interes tasak goratzea ekartzen du urtean %15eraino. Interes tasa goratzen bada, pagatu beharreko interes kopurua ere bai. Gogoratu, gainera, aurreko urtean ezin izan zenituela orduko interesak pagatu, beraz orain zure zorra ere handitu da. Berriz ere murriztu beharrean zaude: Osasunarekin hasten zara eta hori ere ez baita aski, milaka batzuk funtzionario kaleratzen dituzu. Horrela 15.000 dolar biltzea lortzen duzu. Gainerako interesak pagatzeko, berriz ere falta zaizuna adinako kreditu bat eskatu beharrean zaude. |
| **5. urtea** | Aurten ezegonkortasun politiko handia sortzen da. Interes tasek eta truke tasek iazko baldintza beretan irauten dute. Aurten ere 15.000 milioi kruzeiro baino gehiago pagatu ezinik zaude aurtengo interesengatik. |
| **6. urtea** | Kafearen eta azukrearen prezioek lazki egin dute behera, zuk esportatzen dituzun produkzio nagusiak baitira. Horren ondorioz, diru sarrerak izugarri gutxitu dira eta ezin duzu ezer pagatu zorraren interesetatik. Berriz ere beste kreditu bat negoziatu behar duzu aurten pagatu beharreko interes guztiengatik. |
| **7. urtea** | Iaz ezin izan baitzenuen interes kopuru hura bihurtu, Mundu Bankuak eta FMIk hainbat neurri ezarriko dizkizute ez dadin gauza bera berriz gertatu. Hortaz, oso plan ekonomiko gogorra aplikatu beharrean zaude. Hasten zara Estatuaren jabetzako enpresak saltzen (airebideak, burdinbideak, telefonia, telebista, mineralak...). Horrela ere ez baitzara pagatu beharreko 30.000 milioi kruzeiroetara iristen, artoa eta patata merketzen dituzten diru-laguntzak murriztu behar dituzu, nahiz horiek zure herrialdeko populazio pobrearen janari nagusiak diren. Horrela lortzen duzu 30.000 milioi euro horiek pagatzea. |
| **8. urtea** | Mundu Bankuak geroan kreditu berriak emanen dizkizula segurtatzeko, aurten 35.000 milioi kruzeiro pagatzeko konpromisoa hartzen duzu. |
| **9. urtea** | Azken urteetan egindako murrizketa handiek ezinegon handia sortu dute herritarren artean eta horiek herri manifestazioak, greba orokorrak eta zenbait arpilaldi egin dituzte. Armada kalera ateratzen duzu ordena berrezartzeko... Mundu bankuak erabakitzen du aurten 45.000 milioi kruzeiro pagatu behar dituzula |
| **10. urtea** | Aurten Mundu Bankua onginahitsu agertu da eta erabaki du interes tasa %15etik %12ra gutxitzea. Mailegu osoa (1.000 milioi dolarrekoa) bihurtzeko itundutako eperaino iritsi gara, baina konturatzen zara ezin duzula bihurtu. Mundu bankuak kopuru horren beteko beste mailegu bat ematen dizu, beste hamar urtetan bihurtu beharrekoa. Eta jokoa aurrera doa... |

## KANPOKO ZORRAREN JOKOA

Intermon Oxfam-EN "*Las cifras de la desigualdad*" liburua

| | ZORRA $ETAN | TRUKE TASA: KRUZEIROAK $-EKO | ZORRA KRUZEIROTAN | INTERES TASA | PAGATU BEHARREKO INTERESAK | BENETAN PAGATU-TAKOA | PAGATU GABE UTZIA | ESKATUTAKO MAILEGU BERRIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hasierako baldintzak | **1.000** | **100** | **100.000** | **5%** | **5.000** | | | |
| 1. urtea | 1.000 | 100 | 100.000 | 5% | 5.000 | 5.000 | 0 | 0 |
| 2. urtea | 1.000 | 100 | 100.000 | | | | | |
| 3. urtea | | | | | | | | |
| 4. urtea | | | 210.000 | | | | | |
| 5. urtea | | | | | 33.975 | | | |
| 6. urtea | | | | 15% | | | | 36.821 |
| 7. urtea | | 200 | | | | | | |
| 8. urtea | 1.473,2 | | | | | | | |
| 9. urtea | | | | | | | | |
| 10. urtea | | | | | | | | |

### GALDERA BATZUK:

1. Zenbat kruzeiro eskatu ziren hasieran?
2. Zenbat interes pagatuko ziren hasierako baldintzak mantendu balira?
3. Zer diru kopuru pagatu duzu interesetan?
4. 10 urteren buruan, zenbat zor duzu?

5-. Zer iruditzen zaizu "Kanpoko zorra, Betiko zorra" esapidea?

6. Zer gizarte ondorio izan ditu Kanpoko zorra pagatzeak?
7. Pentsa daiteke Kanpoko zorra desberdintasun iturri bat dela?

### GOGOETARAKO JARDUERAK. Zer egin dezaket nik?

Informazioa bilatu Kanpoko zorra barkatzeko kanpaina desberdinen gainean: la Kanpoko Zorra Abolitzeko Herritar Sarea, Manos Unidas...



## 7.4 JARDUERA Iparra-Hegoa

| | |
|---|---|
| Deskripzioa | "*Norte- Sur la fábrica de la pobreza*" liburua irakurri |
| Gaiak | Desberdintasuna, Kanpoko zorra, Pobrezia, merkataritza desberdina, Indikadore ekonomikoak, Indikadore sozialak. |
| Helburuak | • Munduan dagoen desberdintasunaren gaineko datu batzuk ezagutu<br>• Munduan desberdintasunak dituen kausa batzuk ezagutu<br>• Zenbait erakundek (FMI, Mundu bankua, OIT...) pobrezia iraunarazten duten papera gogoetagai hartu.<br>• Mundu zuzenago bat lortzeko guk herritarrok egin dezakegunaz gogoeta egin. |
| Denbora premia | 10 saio. |
| Edukiak | **Kontzeptuak**: Desberdintasuna, Pobrezia, Indikadore ekonomiko eta sozialak, Kanpoko zorra.<br>**Prozedurak**:<br>• "*Norte – Sur: la fábrica de la pobreza*" liburua irakurri<br>• Liburuan ageri diren datuak gogoetagai hartu.<br>**Jarrerak**: Munduan diren desberdintasunen aurrean dugun jarrera gogoetagai hartu. |
| Materiala | Irakurgaia: "*Norte-Sur la fábrica de la pobreza*". |
| Agiriak | Galdeketa. |
| Garapena | • Liburua irakurri.<br>• Liburuan ageri diren datuak gogoetagai hartu. |

Ikasi dugun guztiaren ondotik azken galdera dator. Eta guk institutuko ikasleok, zer egin dezakegu mundu zuzenago eta guztientzat bidezkoagoa lortzeko?

Askotan gure munduko arazoak ikusi bai baina uste izaten dugu guk ezin dugula ezer egin edo agian arazoa berez konponduko dela uste dugu. Baina egia dena da berotze globala, gosea, desberdintasunak bezalako arazoak ez direla besterik gabe berez konponduko.

Agian ez gara gu arazo horietako batzuk zuzenean sortzen ditugunak, baina, nola edo hala, denak gara munduan gertatzen denaren erantzule. Eta beraz esku hartu behar dugu... baina, zer egin dezakegu?

*Norte- Sur: la fábrica de la pobreza* liburuak pista batzuk ematen dizkigu ...




**liburua irakurri**

## NORTE- SUR: LA FÁBRICA DE LA POBREZA

Liburu hau zuentzat idatzi da: Milioika gizaki miseriarik beltzenean bizi diren bitartean, bakan batzuk ezinago jori bizi diren mundu batean bizi nahi ez duzuenentzat. Eskandalu horri kontra egin nahi dutenentzat idatzi da.

Nahiz egia den hegoaldeko pobrezia bertako gobernari eta handikiek ere sortua badela ere, liburu honek Iparraldeko biztanleek dugun erantzunbeharra hartzen du ardatz. Orrialdez orrialde esplikatzen da nola multinazionalak eta bankuak hegoaldeko herrien bizkar aberasten diren, jendaki osoak miseriara bultzatuz, nazioarteko erakundeak ere konplize direla.

Egileak ez dira, ordea, salakuntza hutsean gelditzen; aitzitik, proposatzen digute bakoitzak zer egin dezakegun boteretsuen artean jarrera aldaketa bat izan dadin.

Mekanismo ekonomiko korapilatsuak jorratzen dira, baina ez da ezagupen berezirik behar. Bere xinpleagatik eta bere diseinu grafikoagatik oso baliagarria da eskolarako. Ezinbesteko tresna izanen da hezitzaile eta animatzaile soziokulturalentzat, edo besteei justizia zentzu berria helarazi nahi dien edonorentzat.

**ORAIN ZUK:**

Batzuetan gure gizartea eta gure mundua aldatzeko, aurrena gerok geure burua aldatu behar dugu eta hartarako gure bizimoduaren gaineko balantzea egin beharrean gaude.



**GALDEKETA HONI ERANTZUN:**

1. Zerrenda bat egin etxean eduki eta joan den sei hil honetan erabili ez dituzun objektuekin. Halako 10 baino gehiago badituzu, gogoeta egin noiz, zergatik eta zertarako erosi zenituen.
2. Zerbait apurtzen bazaizu, zer egiten duzu? Konpontzeko eginahala egiten duzu, ala bota eta beste berri bat erosten?
3. Non egiten duzu erosketa? Lekuko denda txikietan edo kate handi nazional nahiz nazioartekoetan?
4. Zure janari erosketak egiten badituzu, zer lehentasun duzu?: prezioa, itxura ona, produktu ekologikoak izatea, produzitzaileak sortzen dizun konfiantza...
5. Zenbatero erosten duzu arropa berria?
6. Zer egiten duzu jada erabiltzen ez dituzun gauzekin?
7. “Kontsumo soziala” delako kontsumo ezagutzen duzu? Praktikatzen al duzu?
8. Berriak ikusten eta irakurtzen dituzu zure ingurune hurbilean nahiz ez hain hurbilean gertatzen denaz informatzeko?
9. Inoiz lan egin al duzu nolabaiteko elkarteren batekin?
10. Inoiz ezer egin al duzu zuzena iruditzen ez zaizun egoera bat salatzeko?

Aztertu zure erantzunak eta pentsa ezazu ea zerbait alda dezakezun.

## BERRIZ ERE ZUK

### OSO TXIKIAK GARA BAINA ERABAKI DEZAKEGU




*Norte-Sur: La fábrica de la pobreza* liburuaren 5. partean herritarren boterea eta gure mundua zuzenagoa izan dadin egin ditzakegun ekintzak hartzen dira ahotan. Ikus ditzagun haietako batzuk:

1. **Boto emanaz:** Alderdi politiko desberdinen programak aztertuz.
2. **Gure kontsumoaren bidez:** produktuen etiketak ongi begiratuz, ingurumena eta langileen eskubide soziolaboralak errespetatuz fabrikaturiko produktuak kontsumitzea hobetsiz, gure hurbileko produzitzaile txikia faboratuz, kontsumo errespontsablea eginaz.
3. **Inbertituz:** Gure bankuek gure dirua non inbertitzen duten kontrolatuz eta armei edo gerrei esker onura hartzen dutenak gaitzetsiz.
4. **Salatuz:** Giza eskubideen kontrako edo bidegabeko egoerak salatuz.
5. **Ikarlanaren bidez:** Giza eskubideen urradura salatzen duen elkarte edo instituzioren batekin.

Hauta ezazu aukera horietako bat (erosoen sentitzen zarena) eta pentsa ezazu zer ekintza konkretu egin zenitzakeen. Nahi baduzu, taldean egin dezakezu, ez da arazorik ***(batasunak, badakizu, indarra dakar!)***.

**Nafarroako Gobernua**
Hezkuntza Departamentua

**Gobierno de Navarra**
Departamento de Educación

Coordinadora de
ONGD Navarra

Nafarroako GGKEen
Koordinakundea

escuelas
solidarias

elkartasun
eskolak